

# IDATZ & MINTZ

## Literatur atalen sorta

53

Aurkibidea: Adolfo Arejita: ZAMARRIPAREN ZURKULU EZKUTU BATZUK. **3**. Lourdes Unzueta: E, AZALEAN TATUAJEA OPARITUKO DIZUT. **15**. Jabier Kalzakorta: JEAN ELISSALDEREN *ALEMANAK* TESTUA. **20**. Jabier Kalzakorta: "ANDEREA GORARIK" BALADAGAIA-REN HIRU EREDU EZEZAGUN. **27**. Amaia Iturbide: TOULOUSE-LAUTRECEN HANKATXOAK (TXORI URRUTIAREN BEGIRADA ANGELU OBLIKUOTIK). **39**. Luigi Anselmi: SEI. **47**. Sebastian Gartzia Trujillo: LAUAXETAREN ERLIJOA, GIZARTEAREN ALDEKO BIZIERAREN OINARRIA. **50**.

ARGITARATZAILEA  
Labayru Ikastegia  
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA

Adolfo Arejita  
Asier Astigarraga  
Jesus A. Etxezarraga  
Jabier Kalzakorta  
Miren Agur Meabe  
Lourdes Unzueta  
Andres Urrutia

ARDURADUNA  
Igone Etxebarria



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2012ko irailean, Baster S. L. L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times letra moldeaz. Irudiak «Erté graphics», «Big book of silhouettes» eta «3.800 early advertising cuts» liburuetatik atera izan dira.



LABAYRU IKASTEGIA  
Áretxabaleta, 1-1ngoia  
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58  
Posta elektronikoa:  
labayru@labayru.org  
48010 BILBAO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Ribonntza Potharaku Salfuonon0029  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Vocoungereu de Potha Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

bbk<sup>2</sup>

# Zamarriparen zurkulu ezkutu batzuk

## *Idazle sena*

Paulo gazterik hasi zan euskeraz idazten. Azkue itzaltsuaren eskutik, edo haren gerizpean behinik behin. Abadegai gazte zala –artean hogeituz zituan–, lehenengo *Euskalzale*-n (1897-1899) eta patu gaiztoak aldizkari hau aldenduazo ebanean, aurrekoaren jarraitzaile izan zan *Ibaizabal*-en be bai zerbait (1902-03). *Artaxori* ezizena erabili eban gehien hasiera horretan, Azkuek beronen idazlanentzat hautu eban goitizena bestalde, ze bera *Txirrikilla* gatzizenaz hasi ei zan bere lantxook bialtzen, berberak autor dauenez. Azkuek, aldizkariko beste laguntzaile askori lez, ikutu eta orraztuak egingo eutsazana ez da dudarik. Gerora, astekari edo «asteroko»ok aldendu ondoren, aldiango euskal aldizkarietara zuzendu zituan bere idazlanak: *Vasconia*, *Euskal-Esnalea*, *Jaungoiko-zale* eta *Euskal-Erria*, batez be, baina beste batzuetara be bai. Idazle honek aldizkarietako lankidetzetan dauen ezaugarrietariko bat, aldizkarira aldiango aldiango bialtzen zituan idazlanei titulu orokor bat emon izana da, halako txorta antzekoak eginez. Ondoren etorriko ziran

liburuak be ertz beretik osoturik dagoz: aldizkarietan sakabanaturiko lanakaz bildumaxoa osatuz. Halan etorriko dira, hurrengorik hurrengo, *Zaparradak eta* (1926), *Kili-kili* (1930) eta *Firi-firi* (1935), guztiok azken baten idazlan bildumak; hirurok, lehendanaz aldizkarietan argitara emoniko lanez horniduak.

Zamarriparen hizluzko sorkuntza, beraz, ez da, bada, aurretiaz asmatu eta zehazturiko egitasmo literario jakin baten arabera garatua, ez genero literario nagusien haritik eihoa. Ez dira ez elabarri, ez antzerki generoen mailakoak; aldiango sorkuntza zehe-xumeak baino. Aldizkarietarako atonduriko lan laburrak, gerora liburu formatorak erakarri dituenak.

Literatura kritikoez ez deusie jera on handirik egin Zamarriparen idazte emaitzari. Estimaziorik gehien jaso daben bere lanak gramatika arlokoak izan dira. *Manual del Vascófilo* (1913) batez be, euskeraz sustraiz eta gatzez idazten laguntzeko estilo-liburu antzeko obra ezaguna, lokuzino eta baliapide mordoaz hornidua. Eta *Gramática*

*Vasca* liburu didaktikoa, bizkai euskerea ikasteko funts-oinarriak mailaz maila gartzten dituan obra, azalpen, adibide, glosario eta ariketaz osaturikoa. Bigarren obra honen merituak, autortu jakozan baino handiagoak dira, gure ustez. Batetik, zazpi argitaraldi ezagutu izan ditu berrogei urte luzetan zehar, eta argitaldirik argitaldira hainbat orrazketa, gehitze eta aldaketa eragin eutsazan egileak. Egia esateko, arduratsua izan genduan Zamarripa bere lanak barriro argitaratu orduan: gramatika-ikasgaiei ezeze, narrazino-lanei be bardin-bardin eragiten eutsezan orrazketak, nahiz gehienetan txikiak. Luis Villasante izan dogu, bere aldi ostetxuan gramatika obra biok fedez abonau dituenetarik bat, haren gramatikearen balioei neurria hartzen eta autortzen jakin dauena: «concienzudamente trabajada» dino lehenengo, eta horretan zein beste idazlanetan darabilen euskereagaitik, beste hau: «El vascuence de Zamarripa es siempre auténtico y de fiar, basado en el pueblo y en los autores castizos, no extraviados por trasnochados prejuicios; no nos vende gato por libre, como desgraciadamente ocurre con harta frecuencia para mal del vascuence» (*Historia de la literatura vasca*, 396). Villasantek gudu aurreko (eta osteko) garbizaleei zirikatatxoa zuzentzen deutse Zamarriparen atxakian: berba «garbiak» bai, baina estilo onik ez darabilela euretariako askok.

Zamarriparen hizlaurko lanari ez jako emon, egia esateko, gora handirik literatura kritikoen aldetik. Karmelo Etxenagusiak bere lorategietarako haren lan banakak baino ez ditu iraztontzitik igaro, eta gatzbakotzat epaitu dau haren umorea. Mikel Zaratek be, besteren ahoz, «txibizkeria» eta horreetariko kalifikatiboak eskeintzen deutsoz;

hori bai, euskera herriko ederraren jabe dala autortu ondoren. Villasanteren esanean, Nazario Oleaga euskaltzaina izan ei zan –Zamarripa ondo ezagutzen eban euskaltzalea, bestalde– gatzbakotasun kontu hau airtu eutsana: «Le gustaba escribir temas que regocijen y hagan reír al lector, pero, francamente, le faltaba gracia para ello» (*ibid.* 396). Nork bere eretxi eta zaletasunak ditu, baina arrazoiak arrazoi, Zamarripari ezin ukatu leio bere «umorea» eta, batez be, euskal hiztunen berba-jardun naturala. Eta Mikel Zarate lezamarraren prosari, berak agirian autortu ez arren, Zamarriparen antzak hartzen ez dago gatx, hizkera eta umorea barne.


Edozelan be, gaurko egoeratik ikusita, gaur egungo premina-hutsuneak ikusita eta batez be bizkaierako edo euskerearen sartaldeko hizkuntza-egoereari erreparatuta, Zamarriparen hizkuntza eta literatura-jarduna gero eta estimaduago eukiteko errazoiak badira. Zenbat eta irakurriago haren lanak –ondo ohartuta irakurten badira, behintzat–, hainbat gehiago ohartzen da bat, nortasun bana-banakoa euki ebala idazle honek, eta bere erara bide-urratzaile izan zala, Sebero Altube izan zan antzera, eta ez itsu-itsuan Azkueren edo beste inoren jarraitzaile. Eta eretxi horrek balio dau, gure ustez, Zamarriparen euskerazko emaitza osorako, bai gramatika, bai lexikografia eta batez be idazte-jardun osorako, esango neuke.

Azkuegaz konparatuta, sintaxi aldetik malguago jokutzen dau, herri berbetatik hurrago. Txorierri aldeko erregistroak eta hitz-ebakerak gurata sartzen ditu dialogoetan, hizkera jasoaren eta herrikoaren arteko mailak ondo bereizten eta baktotxari bere lekua emoten dakiela erakutsiz, estiloari

hurragotik men eginez. Eta lexiko kontuan be ez da horren garbizale; erreparu barik onartzen ditu maileguak, hiztunek on eginak diran kasuan, baina aranismo batzuei bedeinkazinoa emoteko arazorik be ez dauka, onargarri begitantzen jakozanean.

### ***Kontu barre-eragingarriak***

Zamarripa idazlearentzat behinena, hizlauru diharduenean batez be, irakurlearen gogoa irabaztea da. Euskeraz irakurtea, orduko sasoiari, horretara ohitua ez egoan euskaldunarentzat nekeza izango zan, bai seguru. Beharlekua arintzea, euskera-irakurlearen atsegina eta poza bilatzea zan idazle honen lehia. Horretarako idazlan laburren teknikaz baliatuko da –luzeenak



be, asko jota, orrialde gitxi batzuetakoak dira, eta kontagaiari hari luzea jagokonean, atalkatzen daki; aldizkarietan atalka argitaratzen–.

Idazleak «barrea» eta «atsegina» bilatzen ditu irakurlearentzat, berberak autor dauenez. *Zaparradak eta* lehen bilduman (1926) «euskalzaleen atseginerako (...) egindako lan alaiak» ohararazoten deusku izenburuan bertan. Eta barruko «Berbaurretxua»n arabere argiako: «Hau liburuau ez da inori negar eragiteko. Inor mindu barik, zeuri barreak eragiteko eta zeuri atseginaldi bat emoteko asmotan jatortzu».

### ***Jatorriko sustraiak gogor loturik***

Txorierria da Zamarriparentzat bere euskal habia nagusia. Hiru jatorri edo sustrai autortzen deuskuz berak: Txorierria batetik, eta eskualde zabal oparo horretan Sondika eta Asua, zehazki; baina Laredo eta Bermeo portu-herriak bestetik. Euskeran Txorierriri zor deutso gehien, ezin ukatu, baina arrain-herri biakazko zorra be agirian eta harro autortzen dau. Laredogazko zorra txikitakoa da, umezarokoa; baina ezin ukatu, gaztelaniaz be maisutasunez idazten dauela –ez da seguruenik ikasketei jaken zorra, txikitatik edoski eban Kantabriako gaztelanirena be izango da harenbaten–. Bermeogazko zorra bestelakoa da. Lehenengo abade gazte zala Almikan eginiko egotaldi laburra, baina batez be Bermeoko eleiza nagusira parroko izendaturik datorrenekoa, han aldi-kada luzea igaroteko.

Honako berbakaz zehazten deusku jatorri-sustraien kontu hau *Kili-kili* bildumaren sarreran:

«Oi neure Txorierrri maitea ta neure arrain-herri maiteok! Nori opaldu neio neure bigarren barre-ipuindun liburu hau, zuei baino zer gehiagaz?»

Hortxe zeure *altzoan*, Txorierrri maitea, egin dodaz... barre egiten dodala konturaturik egin dodazan neure lenengo barreak.


Badaukot barreka jaiio nintzalakoa... eguna *eguno* lenengoz Laredo izeneko arrain-herri politean ikusi nebanean, ta barreka jaiotetik jatordala uste dot honako barre egiteko daukodan berezko erreztasun zorioneko hau.

Baña, Jainkoaren laguntasunaz, neure bihotzeko aita-ama Zamarripa Bernardino ta Uruga Teresa sondikarrak, neu Sondikaturik, zeuganatu ninduenetik gorakoa ete dodan nago barre egiten dodala jakinik barre egitea.

Barre egiteko erreztasun hau berezkoa dodala, ta arrainak uretan ibiltea lez behar dauela nire gogo barrekor honek... beronen senean egoteko... barre artean ibiltea... hemen, Bermeo izeneko beste arrain-herri maitegarri honetan, ikasi dot. Eta sinistu zeinke, barreka badinotsut be, eztdodala damu jakituri gozo honetara heldua.

Jaungoikoak gura izan dagiala, hor nahi hemen, neure gogo barrezale hau barreka sarri ta pekatutik urrun beti ibiltea; ta zuk eukizuz hortxe bizirik une askotan, Bere laguntasunagaz, neure iza-teaz **priera**, beste gauza on askon artean, Zamarripa ta Uruga abizenok zor deutesidazan ta zeu lez maite-maite dodazan neure aita-ama on maitegarri biok».

Eta zeuk, Txorierrri, ta zuk, Bermeo, ta zuk, Laredo, hartu egizue, eurak legez, irribarretxu maitekor gozo banagaz, beronen burua guztion semetzako daukan liburu-egile euskalzale barrezale honen




opalmen berau, ta deutsuedan maitetasun handi honen ezaugarri izan dagizuela».

### *Eleizgizon ikutua*

Eleizgizona zanik be ez jako igarten sarritan idatzietan, hizlaurkoetan esan gura da. Hain da herri-herrikoa bere diskurtsoa, berbetako –hobeto esanda, idazteko– modua! Eta hain dira herri zeheko jentearenak darabilzan autuak, eretxiak eta urtenaldiak!

Inon igarri izatekotan bere abade statusa (berak halan gurata) hizlaurko lanetan, *Firi-firi* azken bilduman esan daiteke: “berori” esaten deutso Txitxu morroiak bere ugazabari, ugazaba hori “abade jaun” antzeko norbait lez agiri dau eta.



### ***Gramatika kontuetan olgetari***

Zamarriparen gramatika azterketei bagogokez, hor garandu zituan gogoeta eta azalpen argi-zorrotzen oinarrian herri berbetea datzala esan daiteke; herri-hiztunen jarria dau zimendutzat haren gramatika azalpen “seguruak”. Baina gramatika arlotik idazketa esparrura etorrira, hizlaurko bere estiloan ia inoiz ez da ezagun, gramatika arauetara jarraika idazten diharduanik. Berezko senari jaramoten deutso gehiago, herriko hiztunen senari, gramatika arauen arteztasunein baino. Hizkera erabiliaren berezko gramatikeak sineste gehiago emoten deutso, gramatika liburuetakoa baino; nahiz berbera be gramatikari, gramatika-idazle izan.

Adigarriztat, azpian jaso dogun testu baten hasierako esaldia, kontakizunaren

pertsonaia aurkeztera datorrena: “Pepanton da Pepanton”. Horra: galdegaia aditzaren ondoren ipinita, apropos eta beren-beregi, bigarren *Pepanton* horri enfasia emoteko, jakina. Edozein hiztunek erabiliko leuken moduan.

Berbazko estiloaren jarria bere-berean islatzen saiatzen dalako erabilten ditu, hain zuzen, beste idazle batzuetan, batez be bere aldiko edo ostekoetan, agiri diran egitura batzuk. Aurreko ipuin horretan aurretxoago: *ibili doaz* darabil, ohiturazko aditz ekintza adierazoteko; besteok *ibiltan dira* edo *ibili ohi dira* esango genduken lekuan. Bizkaiera zaharreko testuetan ez bada, nekez irakurri daiteken aditz egitura. Baina, halan eta guzti be, idazle sondikoztarrak darabilen aditz perifrasi. Zer dala-eta? Beraren inguruan entzuten ebalako. Txorierrin aldeko hiztuentzat ohikoa zalako bere aldian (gaur beharbada mehatsago entzungo genduke). Ez bakarrik Txorierrin, baita Mungialdean edo Arratia aldean be entzuna izan da oraindino oraintsuan. Beste adibide bat, idatzin berean aurreratxoago dakarren *ito-añik* egitura laburtuan daukagu, klasikoetan *ito aginik* edo *ito aginean* azalduko litzatekena. Egitura zahar hori laburturik gorde da bizirik Txorierrin hizkeran, Paulok agirian ipinten deuskunez.

Gramatika arauak eta berbako egiturak bat ez datozanean be badaki bien arteko etendura zorrotza leuntzen, esatea lez bata eta bestea dirala onartu beharrekoak. Zehar galderazko perpaus honetan, barbarako:

“Eztakit neuk, irakurlea, zeure eritxian, liburu honek nahikoa lan barre eragilerik *badakar...* edo euskera hobez esateko... hemen esan bear dan lez... *dakarren...* ala ez” (*Kili-kili, Berbaurretxua*)

### *Berbategiaren emoia*

Berbategiaren aldetik dau, besteak beste, Zamarriparen prosak aparteko erakarmena. Ez behintzat, berba-barrietara joten dauelako. Ez eta euskal lexiko ondarearen berbarik bitxi edo arraroenen edo ia inorentzat ezagunak ez diranen bila dabilelako. Zamarriparen errepertorioa, hiztunen mingainetik harakoa da gehienbat edo ia osoan, baina berak badaki, ahozko jarioan zer dan baliokoa edo bakana, zerk daukan gain-balioa, zeintzuk diran literatura idatzian mehats entzuten diranak, nahiz berbaz barra-barra erabili izan.

Herri-lexikoa ikasi eta batzeko lehia –eta herri-berbetako berba bitxiak, batez be–, seguruena, Azkueren eraginez edo bidez ikasi eban. Mendearen hasieran, honek bere Hiztegi Nagusia osotzeko euskal herrialde, eskualde eta herri askotan material batzen ziharduala, horretarako laguntzaileak inguratu zituan, eta Txorierriko berba-batzaile nagusia Zamarripa gaztea izan eban –Txorierriko informatzailetzat aitatzen deusku Azkuek Hiztegian, Onaindia dalako bategaz batera–. Baina Zamarripak berak argitzen deusku zuzenago *Zaparradak* bilduman: “Txitxuk eztaki Azkueren hiztegi ederrean dagozan Txorierriko berbarik gehienak edo erdiak inguru behintzat, neuk emonak direanik” (1926, 12). Baina ez zan hor amaitu kontua. Irakaskuntzarako egokitzen be saiatu zan. Beraren *Gramática Vasca*-ren eraskin edo osogarriztat ondu eban hiztegi labur elebiduna be (euskera-gaztelania eta alderantziz), maisu-lana dogu zehaztasunean eta egokitasunean, bere izaera didaktiko horren muga guztiak gorabehera. Baina sorkuntzazko idazlanak ditu, hizlaurkoak berariaz, herri-lexiko oparoaren iturri. Txitean-pitean idoroko ditu-

gu bere lanetan, literatura idatzian bakan antzean agiri diran berba eta esamoduak.

Azkueren hiztegiari egiten deuskan eka-rrian legetxe, bere idazlanetan be Txorierriko aldeko berba-ondarea dau iturri nagusia, beste inongoa baino gehiago. Bestetara esanda, bere uztako ardaoa opesten deusku gehien. Eta Txorierrikoa dinogunean, bizkaieraren sartaldekoa esan gura da. Berberak autor dau behin baino sarriago, beraren berbakerea eta Arratia-Orozko inguruetakoa antz-antzekoak dirala ia danean. Baina zehaztasun gehiagoz esan daiteke, beraren berbakerea eta Mungialde eta Uribe-kostakoa hur-hurrekoak dirala eta horreexetako harrobiaz baliatzen dala gehien. Adizlagun bat aitatzeko, *obuan* edo *obu obuan*, ‘justu-justuan, ozta-ozta’, beheko idazlan hautuan darabilena, baina euskal testuen corpusean sano urria dana.

Neologismoen aurrean atzerea da gehiago, aurrerea baino. Gramatikeari erantsirik “Vocabulario” horretan sartzen deuskuz orduan hain modara egozan aranismo batzuk, zabal ebilzanak, baina beti be ikur batez iragarrita neologismoak dirana. Zamarripak ondo ekian bere jarrera “kontserbadorea” ez zala ondo ikusia gudu aurreko euskalzaletasun giroan, batez be Bilbo aldekoan. Halanda ze, neologismoak –edo aranismoak– bakan baino ez darabilz bere idatzietan, eta zeharka kritikatu be egiten ditu; aurrez baino zeharka gehiago. Zehar-kritika horren eredu bikaina dogu *Kili-Kili* bildumaren sarreran: “Gizonak, ez eidazue berba barririk asmau”, dirautse linotipistei, bere idatziak inprimategirako jotzen ditueni: “Ba, euskalzale batzuk asmauriko berba askoren antzera, zeuek asmaurikoak be... okertxu asmaurikoak izaten dira... gehienetan”.



## GANORA BAKO LAPURRAK

Pepanton da Pepanton. Eta Pepanton lan-gorik gitxi. Esan gura dot, Pepanton lango gizonik ez dodala ezagutu, bera baino beste-rik.

Bera da, ezegaitik erreten ez dana. Ez dakit suak erreko baleu! Beste ezerk ez behintzat.

Bera ezegaitik estutu? Ezta! Estutu beitez, gura badabe, gibel txikerdun andra-gizonak.

Asko, gauza bat erara ez jatorkenean, goiak eta beheak jo beharrean ibili doaz, eta sarritan, amurruaren amurruz, *tripak* jaten ikusiko zenduezan. Baina Pepanton bata ez bestea egiten ikusi dauenik ez da jaio, eta jaioko bere ez, mundua mundu dan artean.

Berak dino ez dala ondo goiak jotea, burua hausi leitekela eta; *tripak*, barriz, jatekotan, jan behar direala pizti edo hegazti gozoren batenak, erea euki ezker; norberarenak, inoiz bere ez. Norbere *tripak* jateak gibelari kalte egiten ei deutso, eta bere gibelari kalterik egin leion gauzarik ez dau gura jan Pepantonek, Erregek berak belauniko esanda be.

Eta errazoia daukala-ta nago. Gibel ederra dauka, eta tamala litzateke bera alperrik galtzea. Gibel ederra dauka, Jainkoak emonda, eta ondo egiten dau haragi zati eder hori osasunean zainduteaz.

Harako, zotza atxakia ez dala, inogaz hasarraturik, euron berbeaz berotu eta amurruz ito aginik ibiltan diranak badaukie zer ikasi zugan, Pepanton maitea.

\*\*\*

Lehengo gau baten, Pepantonek dirutsua dalako entzutea dauka herrian eta alberrie-

tan zabaldurik eta, lapurrak sartu jakoz etxean, korta ondoko horma zati bat zulututa.

Hainbat behar egin behar izan eben lapurrok, gizon bat igaroteko besteko zuloa egiteko, bada hormok harrigorrezkoak eta sendoak ditu, sekula bada, Pepantonen etxeak.

Egia da, errezago zulotu eukeena, behin, etxe berorren aurreko atea; baina zarata gitxiago ateratearren edo, badakizu ba... eurok dakie zergaitik, hormatik zuloa egiteari eretxi eutsien hobeto. Albait zaratarik gitxien ateratearren, albait isilen ebilzan harria joteko zerean berean bere. Barruan sartu baino lehen Pepanton iratzartuko ebelako bildurra eukien.

Baina Pepanton lorik gozoenean egoan, *jurru jurruka* zarata zoliak ahotik urteten eutsiela, lapurren ardura asko barik. Haiek lo-zaratak! Lapurrak eurak ikaratuteko beste-koak ziran!

Igon eben honeek, Pepantonek asmau barik, beronen bizilekura, eta hondino be gizon gibeltsua lotan egoan, luze-luze, zabal-zabal eta *jurru-jurruka*.

Harako bere gelako atearen kisketari lapurrak eragin eutsienean, erdi-izartu zan obu-obuan, eta izara-hegal bategaz begiak igorditen ebazan artean, hasi zan esaten:

–Ba, badator norbait! Ez jaukak dana dalako horrek neuk beste logura!

Izarea begietatik kendu ebanekoxe, ikusi zituan bere aurrean morroi bi, esku eskoietan *puñal* bana eta arpegietan zomorro bana ebezala; isilik, motz, ilun eta tutea baino lerdanago.

Eurak ikustea izango zan nahikoa, Pepantonentzat ez beste edozeinentzat, ber-

ba barik hilda geratuteko. Baina Pepantone-ri ez eutsan eragintxurik bere egin lapurron agerkereak, eta bera, ezpanai gibelagaz lagunduta inoizko berbaguratsuen egoan.

–Kontxo! Holangorik ikusteko be! –esan eban, begiak zabal-zabal eginda.

–Izartu zara? –esan eutsan behingoan lapurretari bategi, ardao usainez beteriko berbaots gogorragaz–. Atera eizu hemen daukazu guztia... Ez dago beste *erremediorik*... Bizitzea edo boltsea!

–A, kontxo! Euskaldunak zarie, ezta? Errez ulertuko dogu alkar orduan... Baina euskaldunak izan eta, horren krintzabakoak?

–Ez dogu behar krintzarik. Dirua da behar doguna.

–Eta dirurik emon ezik...

–Dirua edo bizitzea. Ez dago beste zerik...

–Eta bizitzea niri kenduta, zertarako izango zeunkie? Salduteko?

–Tira! Barriketa gitxi eta atera daukazu guztia. Jun! Nahikoa da barriketarik! Emon arin boltsea, edo bizitzea kenduko jatzu. Zentalla!

Hau esanda, bigarren lapurrak begietan imini eutsan bere puinalaren aho zorrotz bildurgarria.

Pepanton ez zan horregaitik be estutu. Estutu, ostera? Arteko artetasuna (tenplantea) galdu barik, dinotso berba bigunagoakaz, baina zabal-zabal, lapurrari, lapur hasarruari:

–Bai, kontxo! Bai, errazoia daukazu. Itxurea be ez da, holan gizon bi baten begira eukitea... honen luzaro... Boltsea gura dozue? Oraintxe behingoan emongo deusuet... Ba! Badago etxe honetan dirua baino ez dana! Baina ni boltsearen bila haste-

ko, ondo izango dozue puinal horreekaz apur bat harago joatea; bada eurokaz emoten deustazuen bildurragaz ezin neike ezertxu egin, eskurik mugidu be ez... Tira, holantxe! Alboratu zarie nahikoa... Baina badakizue gauza bat? Gauza baten nago pentsetan ointxe...

–Zertan? Esan arin, jun!

–Nago pentsetan, etxe honen hormak eta atearak direan gogorak izanda, nondik sartu ete zarien. Nondik sartu zarie zeurok?

–Barriketarik nahikoa entzun dogu eta, hara gero...!

–Bai, bai –dino Pepantonek buruko azpian eskua sartuta–, zurok barriketea baino dirua gurago.

–Jagi zaite behingoan edo zagozan lekuan josiko zaitugu txistua baino arinago. Jun!

–Ez, holan baino arinago jagiko naz.

Esan eta egin, buruko azpitik sei begidun tresna polit bat ateraten dauela, jagiten da ohetik saltu baten, eurok uste eban baino lehenago. Eta lapurrok, konturatu orduko, ikusten dabe Pepantonen esku eskoian, boltsea barik, sei sutotseko (sei tiroko) *errevolvera* esaten jakon tresnatxua, euron arpegietara begira.

Geldirik eta isilik egozan lapurrok, Pepanton Gibelandiren tresnatxuari begira, barbarik ez inora zirkinik egin barik, zer esan ez zer egin ez dakiela. Eta holantxe egongo zirean hurrengo goizera artean, Pepanton bera berbaz hasi ez balitz.

–Tira, mutilak! Ez dozue esan gura izan nondik sartu zarien, ezta? Ba ointxe urten beharko dozue sartu zarien leku berberetik. Tira! Hasi ibiltzen neure aurretik astiro astiro! Et! Atzera begiratu barik! Barriro atzera

begiratuten dauenak, arin hartuko dau emon gura ez deusadan, tresnatxu honetako *okaran* garau bat bekoki bekokian. Aurrera, mutilak! Beti aurrera, bildur barik!

Egin eben lapurrok Pepantonen esana, amarena egingo eben legez, apal apalik eta otzan otzanik. Eta bere aurretik urten eben gelatik artez artez, atzera gehiago begiratu barik eta *errespeto* handian, Pepantonek berak dinoanez.

Eurok egin eben zulora heldutean, agindu eutsien urteteko banan-banan bertatik, ba bientzako lekurik ez ebela egin; eta jakin egiela, lehenengo urtetan ebanak urtengo ebala hobeto besteak baino.

–Baina itxaron apur baten –esan eutsien gero–. Kontseju bat emon behar deusuet lehenago. Arpegiak zomorroakaz estalduteaz esan lei lotsorrek zariela erakutsi gura izan dozuela. Ondo da lotsorra izatea... Baina krintzea be behar-beharreko gauzea da, eta zurok zarie lapur krintzabako ganorabakoak. Hurrengo zatozienean, ez zarie sartuko gero etxe honetan “Gaubon” esan barik... Tira, urten orain, ganora bako lapurrok!

Urten eban batak kanpora; eta bestea zuloratuten hasi zanean kanpora urteteko, Pepantonek, mokorretik oratuta, “itxaroik apur baten”, esan eutsan, “entzuik zerbait gehiago be”.

–Esan egiok kanpoan dagoan lagun horreri, lapurretarako baino hargintzarako ganora hobarik ez bajaukak, ez dala ondo ibiliko (hargina zan-eta auzokoa; ezagutu egin eban Pepantonek). Hargintzan zelangoa dan ikusi gura dodala eta datorrela bihar hau zuloau betetuten, lotsa ez badok. Bera lotsa badok, beste hargin bat ekarriko joat. Eta orain hiri, eutso! Plast! Plast! Plast! Eta amari esan egiok, ez hazala heu egon inongo *tabernatan*, Pepantonen etxean baino.

Ez eban lapur honek hotzik eroan bere mokorrean, hiru ostikada zolien soinu-hotsak esan ebenetik. Soinu honeen ostean barre-zantzo baten soinu zaratatsua entzun zan, etxe barruan egiten zana. Pepantonek barreka *kar, kar, kar* eginikoa.

Eta behingoan beste soinu bat. Kirrisk karrask! Pepanton ohera sartzean, bere gorputzaren hotsak oheari eraginikoa.

### EZ DOGU BEHAR EZTABAIDARIK

–Ez lei esan zertatik zertara hasarratu leitekizan gizonak. Zegaitik esango zeunke zuk hasarratu zireala gizon bi lehengo baten Bilbon?

–Nik dakit ba!

–Ez zeinke igarri!

–Ez, zeuk esan ezik.

–Urlia zerekoa<sup>1</sup> zein oinetatik errena dan hasi zirean eztabaidan: batak eskumatik dala, besteak, ostera, ezkerretik.

–Arraietan, gora handiko (inportantzi handiko) eztabaidea! Ez eukien zeri ekin asko.

–Haorixe esan neutsen neuk be: ezkerretik edo eskumatik izan, Urlia zerekoari berari izango deusala ardura, baina guri zer deuskun. Baina esan baneutsen, esan neutsen. Jan ez ninduenean bien artean...! Ea noiztik hona dan bardin ezkerretik edo eskoatik erren izatea..., ea bat badira ezke-

rra eta eskumea... Isilik egon naitela gano-  
ra bako berbarik esan barik... Ba, ba, ba,  
eztabaidea nahi dabenak eurak hasarratu  
daitezala, gura badabe –esan neutsan neure  
buruari– eta mutik be ez neutsen egin gehia-  
go.

–Beraz zu ez zinean hasarratu.

–Baina eurak bai, eta zelan hasarratu be!  
Bigarren berbarako berotu zirean biak ika-  
ragarriro, eta esan eutsen alkarri ahoak  
emoten eutsen guztia. Tentela batak, astoa  
besteak, mandoa, papaoa, kirtena, koko-  
loa... zer ez eutsen esan haiek batak bestea-  
ri?

–Horretara argitu eta ebatziduko eben  
euron gorabehera. Askok egin ohi daben  
lez.

–Ez ba! Ezin eikeen holan jarraitu, eta  
mihinari bakean itxi eta eskuai behar eragi-  
ten hasi zirean. Hango plastazoak! Hango  
zapladak! Zer zan han! Aitearen egin ordu-  
ko (eta eurek ez eukien aitearen egiteko asti  
asko), beroenak eta indartsuenak egin eu-  
tsan besteari egitekoa: eper-mokorrean  
emon gurean, emoten deutso ostikada bat  
papar-paparrean, eta belarria eratziaz, itxi-  
ten dau itsututa, berbarik ezin dauela.

–Kontxo, ez zan ostikada makala! Baina  
berbarik egin ezinik itxiteko, mihina be  
manatu eutsan ala?<sup>2</sup>

–Manatu ez, baina minberatu bai. Nik  
bebingoan igarri neutsan berbarik egin ezi-  
nik geratu zana.

–Zertan?

–Koxoka hasi zan eta...

–Hori ganera? Ja, ja, ja! Beraz oinean be  
egin jakon zeozer.

–Zeozer baino ez? Ez dakit zer izango  
zan han, txinel batek, aguazil batek hanka  
gogorrekoari oratu ez baleutso.

–Horreek txinelok be! Ordura artean zer-  
tan egoan han ba txinelori?

–Aitearenka, gizona!

–Zuk asmauko ez dozunik...

–Ez dago asmazinorik, holan zan eta.  
Oratu eutsan txinelak hanka gogorreko  
horreri eta eroan eban kartzelara.

–Eta kartzelan egongo da orain be.

–Bai, zera! Kartzelan sartu zan, baina  
txinelak atea ix<sup>3</sup> orduko, atera eban zisku-  
tik bizarra kenduteko labainea, eta *rra rra*,  
hots bitan, golpe bitan, “hau honetarako da”  
esanda, surpeko bizar mataza guztia kendu  
eban. Bere burua hiltera joialakoan, labai-  
nea kenduten joan jakon txinela, “zer egiten  
dok, gizajotzarra!” dirautsala; baina hankaz  
besteko gogorra izan eskuz be eta, era bate-  
ra txinelari oraturik, kenduten deutzaz beste  
hots bitan bere bibotea eta garrian eukan  
errebolbera. Halakorik! Txinela lurmenduta  
egoan, eta berak gura ebana guztia egiten  
itxi eutsan bake-bakean. Eta gizon gogo-  
rrak, bere bibotea eta soinekoak txinelari  
ezarri, txinel beraren bibote eta soinekoak  
jantzi, atea txinel berak eukan giltzagaz ix  
eta kanpora urten eban.

–Txinela katigu itxita?

–Bai, txinela katigu itxita, eta ardura  
handi barik urten be. Eta harritu zaitez, adis-  
kidea. Kanpora urten eta egun guztian ibili  
zan, txinelak ohi eban kalean, txineltzea  
egiten, kale-musturrak jagoten eta hutsik  
egiten eben gizajoai *multak* ezarten, inork  
ezagututeko bildur barik. Hain zuzen be,  
txinelaren bibote eta soinekoak txinela  
bera zirudian eta, nork igarri?

–Gaur artean be holan ibili behar eban.

–Bai, baina txinelaren errukiagaitik, Bil-  
botik urten eta gobernadorea jakitun imintea  
otu jakon. Idatzi eutsan ba eskutitza, eta

zirautsan eskutitzean gobernadoreari, arren, erukitu zedila kalabozan dagoan gizona-gaz, ez dala bera, bere lekuan sartutea suertau jakon txinel gizajo bat baino eta. Honen lekuan itxiko dituala (eta izentau eutsan lekua) aguazilaren jantzi, kalabozoko giltz eta aguazilari kenduriko gauza guztiak, errebolbera eta bibotea izan ezik. Honeek berak behar dituala..., berari eurok kenduteko bizarririk ez daukala inork..., eta zertarako dituan berak dakian ezkerro, itxiteko berari eroaten onean.

–Zertarako ete zituan ba?

–Gero jakingo dozu. Gobernadorearen-tzako eskutitza korreora bota eta behingoan otu jakon zaurituaren etxera joatea. Honek, begien aurrean ikusi ebanean, Urlia zerekoa txinel jantzita dalakotzat itxi eutsan, eta esan be bai: “Koxoa balitz, txinel hori Urlia zerekoa berbera. Antz handiagokorik asko asko...!”. Baeritxon guzurrezko txinelak berak be. Eta azartu jakon esaten: “A mutil, esango deustak ointxe Urlia zerekoa zein oinetatik dan koxoa?”. “Hi haz? –erantzun eutsan besteak, berbatik ezagututa, debanioan–. Kendu hakit hortik, mandotzarrori, ohepean daukadanagaz burua hasi barik! Ez deuat esan lehen eskumatik dala? Hoba izango naioan, heu oin bietatik edo laurotatik izatea. Joan hakit arin!”. “Joan beharko” erantzunda, urten eban zaurituaren etxetik, sartu zanean eukan ardurabakotasun berberagaz, eta otu jakon joatea..., nora esango zeunke?

–Nik dakit ba! Hain dira baragarriak gizon horregaitik dinaustazuzanak ze...

–Elgoibarrera, Arrenabatekoagana joan zan.

–A bai, zaurituari hazurren bat apurtuko jakon eta, osatu degion.

–Ezta eta! Joan da Elgoibarrera, Arrenabatekoagana, eta esan deutso Arrenabatekoari: “Zu zara Arrenabateko hazur-imintzaile entzutetsua?”. “Bai”, erantzun deutso berak, erantzun behar eban lez. “Tira ba, hazur-ipintzaile ona bazara, hazur-okertzailea be ez zara txarra izango. Hona hemen, irudi honetan dagoan hankea badakutsu? Hone-txen antzean neurea imintea gura neuke.

–Holangorik!

–Arrenabatekoa odol beroko gizona jatzu, eta burlazar jatorkola uste izanik, esan eutsan, oinaren orde z samea bihurtutea gura ez baeban, arin baino arinago urten egiteko bere etxetik. Eta urten eban arin, “beste hazur-okertzaile bategana joango naz” baino gehiago esateko asti barik, lau oinean eskailerak pasauaz, okerreko hankea okertuteko arrisku handiaz.

–Eta errebolbera noizko eukan ba?

–Ez eban atera gura izan inoren etxean.

–Itxi deiogun Urlia zerekoari eta goazen bazkaldutera.

–Itxi? Hanka bat jango neuskio nik horreri, bere etxean sartuteko zoria behin izango baneu. Ai, konbidauko banindu! Badirautsut: izter bat jango neuskio...

–Ezkerra ala eskumea?

–Ba, ba, ba... Eztabaida bila hasi zara zu be? Ez dogu behar eztabaidarik. Konbidau naizu zeuk, eta bakea.

–Ondo esana. Neu esateko egon nazana. Bakea eta jatea izango dozu gaur eguerdian nire etxean. Eta zure guzurraz, neuk lez, barrerik nahikoa egin daben entzule maitegarriok be, hartu leie eurontzat gaur nire etxeko mahaia eta mahaikoak; lekurik ez dago guztientzat ze...

–Gaur eguerdian guztiok batera egotea baleiteke, guzur gehiago zeuoi kontetako. Badaukat guzurretan! Etorriko zarie? Zeintzuk? E? Baina kontu: ez dogu behar eztabaidarik.

–Egia dino; ez dogu behar eztabaidarik bapere. Eztabaida barik hasi behar dozue txaloak joten bere. Jo, ia, txaloak, guztiguztiok, joan gaitезan alegere!

## OHARRAK

<sup>1</sup> Fulano el de tal sitio, erderaz. (P.Z.)


<sup>2</sup> Manatu: banatu, apurtu, astindu.

<sup>3</sup> Txorierri, Mungialde eta Uribe-kostan *ixi* erabilten da ‘zarratu’ adierazoteko, eta *itxi*, ‘laga, utzi’ esan-

gurarako, horretara esangura guztiz banangoen hominimia hausiaz.



## E, azalean tatuajea oparituko dizut



Denda-osteko ilunpean zain dago G gizona. Etsipenak eta herrak jota zain. Aspaldian ez da dendan bezerorik sartu, dendak hasierako berritasunaren xarma galdu duelako agian, auzoan horrelako hainbat eta hainbat zabaldu direlako; hasieran bata bestearen arrimuan bero-bero zeudenak, gerora bata bestearen lehia hotzean direlako; auzoan ahoz-aho dabiltzan zurrumuruak hedatu direlako hedatu, batek daki zergatik, baina Gk gero eta denbora gehiago ematen du denda-osteko ilunpean kalera begira dagoen dendaren argipean baino.

Norbaiten zain dago G. Dendako muga egiten duen atea zeharkatu eta berbabidea emango dion bezeroaren zain izan ere. Eskarmentu handiko dendariak lehen begi kolpez ezer erosiko ez dion bezerotzat jo arren, horixe behintzat gurako luke, sartu dadila, galdetu diezaiola

edozer, dendan bertan ez daukanari buruz bada ere, berdin dio, galdetu diezaiola, endredatu dadila berbetan baita berbazkoa ez den hizkeran ere, ikusiko du gero berak zelan aurrera egin, zelan erakarri bezero jakingurakoa, zelan eraman bere bideetatik.

Dendako neoizko iragarkiaren zarata kirrinkaria datorkio. Matxuratuta dabil aspaldian eta zarata aspergarriaz gainera, letraren batzuek ez dute argirik jalkitzen. Letra batzuk argi barik, argidun bakarrek erakargarritasunari ezin eutsita, bertan behera itxitako negozioa iritziko liokete bezero gurakoek.

Bien bitartean, denbora emanez, Gk dendako katalogoak darabiltza esku artean. Erakusgaien orri-pasan, denboraren orri-pasan, denbora emanez. Behin-behineko tatuajeak erakusten dituztenak lehenengo, azaletik eta arin samar, haizeak gero hareatzen hanka puntetan

egindako oinatzak bailiran barreiatuko dituen tatuajeak. Ezabatu ezinezko tatuajeak ondoren, astunak, elefantearen hankek lokatzetan itxita-ko lorratzak bezain. Henna naturala, gorritzeta marroikara, arinak hirurak; henna beltza, betirakoa; henna antzerako kimikagaiak; ez da urruneko herrialdeetara joan behar, bertondago azalean tatuajea oparituko dizuna.

Denda inguruan itzalen bat ikusi duelakoan, erakusgaietatik altxatuko ditu begiak Gk. Alarma faltsua baino ez da izango ostera, inguruan, neoizko iragarkiaren letra argidun bakarren itzala eta berauen jabearena besterik ez dira ikusten eta.

Esku artean darabiltza berriro ere tatuajera-ko erakusgaiak. Tximeleta hegalaria besaburuetatik ihes egin gura bailute, orkatiletako erpinak tximeleta hego-nekatuen pausaleku, tximeletak beti gorputzaren hegaletan, alde egiteko prest. Gorputzaren hegalak beti tximeleten erakarleku, hegaz egin aurretik atsedean izan dezaten, Gren esku artean birrinduta hauts bihurtu baino lehen, indarra hartu, eta alde, alde egin dezaten.

Atzekoek alde egin diotelako ernegatuta, aurrera darraite Gren eskuek orri-pasan, aurre-rantz katalogoan, erdialderantz gorputzean. Han haztatuko ditu sistole dardaratsuan odola zilbor-hestera husten duten tatuaje-bihotz bakartiak, han, han, baztertuko ditu bizitzako *piercingak* bihotz-haragia urratu dizkien tximeleta hego-eroriak.

Beso eta izterretatik zehar sigi-sagaka doazen tatuaje txistukariek dei egiten diote Gri, lehia eta norgehiagoka pizten diote barruan, behinola paradisuko sugeak nola. Suspergarri iritzitako denbora-pasa igarota, belartzaren itzaletatik eta harri tarteko ezkutalekutik kanpora, denda-osteko ilunetatik flasheatuta, erne

jarri da G. Esku artean blaust itxitako katalogo-  
arimek mina sentitu dute.

Erakusgaiak esku artean blaust itxi orduko, halako baten, hots kirrinkariaren doinuari jarraituz, dendako atea zabaltzen entzungo du, apurka-apurka, jakingurak eta goganbeharrak, biak ala biak, akuilatuta bata galgatuta besteak, atea zabalarazi egin dioten bezero gurakoak bultzatutako atearen kirrinka dantzu Gk.

Egun osoan desiratutako eta itxarondako bezeroa, litekeen bezeroa dauka aurrez-aurre Gk. Beltzarana da, planta ederreko agertzen zaio andrea, eta eskarmentu handiko tatuajegile senak haren gorputz-azalerara daramazkio begiak. Begirada soil eta zulatzaile batez, andrearen zirrikitu eta plegadura guztiak antzeman ditu, mendi tontorretara igo da, zelaigunetara jaitsi, igali zenbat eta urrunago orduan eta desiratuagoak dilindan dituzten enbor-adarretatik gora egin, zuhaitzetako felpazko orritza haztatu, dena begiak zabal-zabal, begiek, betazalak bata bestearen kontra ere, *eyes wide shut* haren harakoek egingo zuketan berdin.

Ali Babaren kobazuloa ala bizitza ederretsiko dion printzearen audientzia-ganbara, bieta-ko bat zein zabaldu duen ez dakien tatuatugaiak, ateko kisketan eskua oraindino, tatuajegilearen begiek bideratutako korrontea nabaritu du gorputzean zehar, elektrizitatez kargatutako borneren bat ikutzerakoan nola.

Ez du atzera egin ostera. Desatsegina bezain kitzikagarria iritzi dio horri korronteorri. Ateko kisketa aindu eta dendakobazuloganbarara sartu da.

Aurrez-aurre daude elkar neurtzen euren begiradari eusten dioten biak.

–Arratsalde on– hasiko zaio bezero gurako sartu berria.



–Baita zeuri ere– erantzungo dio Gk. Ordua da izan ere, bateren bat nire denda barrura jakin-minez sartzeko, hori diotso Gk bere buruari esateko, baina mingainari haginka eginda, –ordu onean zatoz– diotso andreari.

–Ordu onean, zertarako? – besteak, bekainak, jostari, hurreratuz.

–Ordu onean, dendako giroa lasai dagoelako, dendan sartu orduko patxadazko ezer ez egiteko ezer ez erosteko asmoa igartzen diedan kuxkuxero denbora galarazlez beteta egon beharrean, horrela nire arreta guztia merezi duen damari, zeuri, eskaintzeko.

–Hara, tatuaje fin eta polit bat egin gura nuke, aukeran txikitxo, aukeran diskretuxoa, nire gorputzeko bidegurutzeren baten tatuatzeko, dena agerian itxi barik aditzen ematen duena, ez dakit, horrelako zer edo zer, ez daukat ideia guztiz osaturik ez finkaturik, leku finkorik ere ez, hori bai, leku ezkutu samarrean izan dadila, ustebako bat eman nahi diot-eta, ez dakit, zer diostazu zeuk?

–Ez zaitez arduratu, den-denetik daukat dena honetan, begira, hemen dituzu eskura zenbat-gura erakusgai, seguru nago zeure gustokoren bat aurkituko duzuna– diotso Gk –eta ez dakit nori ere gustatuko zaiona– azken hau jakin-minez eta ernegu ukitu batez esan ere.

–Erakusgaiotan gustukorik aurkitzerik ez bazenu, hemen nauzu, beti ere zalantzan dabilen andreari bidea erakusteko prest.

–Batak galdera besteak erantzuna luze samar iritzita, zuzenera jo eta batak erakusgaiak erakusteari eta besteak eurok ikusteari ekingo diote. Orri-pasa dabil andrea, begiz jotako tatuajeak haztatuz, tximeleta hegalariak hegaz hasi baino lehen, horma-sugandilak harri tartetik desagertu aurretik, haztatu, ikutu, ihes egingo lioketen beldur balitz bezala; makurtu

eta lore-sorta bateratzaitetik askatutako larrosa eta mitxoleta zein baino zein erakargarriagoei usain eginez.

Oroitzapen-pasa dabil G, begiz jotako emakumeak akordura ekarriz, haien gorputz-azalretan egindako laztanak berriro eginez, bihur-bihur eginez, txitximurka eginez. Behinolako mitxeleta hegalariak hegoak bai, badituzte, zilarrezko orratzez zeharkatuta, koloretako kartoi-zko kaxatan sartuta, bilduma ederra eginez, disekatuta, sailkatuta eta etiketatuta, kaligrafiazko hizki ederrez idatzita: neurea izango zara edo inorena ere ez.

Hego-zaurituta baina suspertzeko indarrez alde egin dion azken mitxeleta datorkio indarrez akordura, lotan edo *stand by*ean egondako oroitzapena oldartzen zaio, belarrondoko batez uxatu gurako lukeen E emakumearen irudipena hain zuzen ere. Azkenetaraino dastatu bako edabea, irensbidean zapore gazi-gozoa itxi ziona, erremate erabakigarriak eman ez zion apustua.

Burua astindu, horren ondorioz oroitzapenok alde egingo balute bezala, eta bere dendan da berriro. Erakusgaietatik aldenduz egin duen keinuak, andre tatuatugaiak zer aukeratu duen, zer gura duen, beste horri zer oparitu gura dion diotso Gri. Amaitu zaio itxaron beharra, amaitu itxaron beharrak sortutako gomutak, ekinean hasi beharko du, biharko oroitzapenik izango badu.

–Begira ba, hauxe, hauxe tatuaje hauxe aukeratu dut. Larrosa kolore gorria. Nire azal koloreari ondo doakiola uste dut, kontraste ona sortuko dute beltzak eta gorriak, gorriak eta beltzak, gorriak beltzaren gainean. Oparizat ez dago lorategian kurioso-kurioso aukeratutako larrosa bakarra lakorik.

–Gustu onekoa zarela ezagun duzu. Suertekoa da oparia hartuko duena, gurako nuke neuk ere. Eta zein humusetan landatuko dut tatuajea gero loratu dadin?

–Zu zeu zara lorezain tatuajegilea. Zuk zeuk oparoztat jotako lurrean.

–Ez dakit, bular arteko erretenean behar bada, eskotetik erakusten ez erakusten, bestearen begirada limurtzen, hortxe– arduragabeen G, aurretiaz begietako X izpiez andrearen gorpuzaren erradiografia osoa egin izan ez balu bezala.

Ohatilan etzan, bularretakoa kendu ez kendu dago andrea, baietz diotse Gren begiek, baietz azkenean berak ere. Estaldurapetik plast egin eta pinporta beteango lili bi agertuko dira, loratuko dira. Gaitz izango zaio Gren larrosa kolore gorriko tatuajeari benetakoa antza hartzea, are gehiago hobetzea.

Pultsu irmoz ekingo dio tatuajeari, lore arteko bidea urratzeari, lorez lore ibiltzeari, eskuekin traban jartzen zaiona aldentzeari, tatuajea hemen igurtzi han egiteari. Arantzarik bako larrosaren minez darrai Gk, munduan bera bakarrik bailitzan ziztadaka eta txitximurka ibiltzeko eskumenduna.

Ekin eta ekin, andrearen ezpain mamitsuek ai! eten bat jaulkiko dute, eta erreka gorria isurian hasiko da haren erretenetik behera. Orain gorriak eta beltzak, beltzak eta gorriak ez dute kontraste ederrik sortzen, orain gorria ez dago beltzaren gainean, gorria zurbilaren gainean dago orain.

Izarrik bako zeruari begira daude E emakumearen begiak. Izarrik balego ere, ez lukete halakorik ikusiko zeruari begira dagoen emakumearen begi puztuek. Negar egin ala ez, ez daki zer egin. Negar egin gura izango balu, agian ez luke tanttarik aurkituko negar-anpu-

lutegian, sikatuta eta agortuta legoke bera honez gero. Oraindik orain negar-anpulurik balego, agian ez luke Ek lekurik eta indarrik izango betazal handituen artean negar-anpulu eusteko, aurpegitik behera dariola izango lituzke.

Ez daki zer egin, oraintxe bertan jakin dakien bakarra han goian zerua dagoena da, izarratua izan zein izarrik bakoia izan, hantxe egongo da, hari zuzentzen zaizkio bere begiak, eta ahaleginak egingo ditu egin Ek behinolako begi distiratsu eta alaiak ikusten zuten zeru berbera ikusteko.

Ikusten du ikusi bere burua itsasargi baten ondoko belartzan, udako gau batez, zeru izarratuaren pean, hango parajeetako izarrek eta konstelazioak ezagutzen eta euroi izena ematen, gaua aurrera eta loaren premiarik barik, G gizonak maitasun berbak eta promesak belarriara xuxurlatzen dizkiola, emeki-emeki, mara-mara jausitako izar zatitxoak bailiran.

Begiak zabal-zabalik, ikuskizun siderala behin-betiko bere barruan finkatu gurean, hankak zabal-zabalik esne-bidetik isuritakoa bere barruan gorde gurean, itsasargiaren distira birakaria zeru-itsasertzean islatzen delarik, itsasargiaren ondoko belartzan etzanda, itsaslabarra astintzen duten olatuen doinua lorik bako gauaren lo-kantarena egiten.

Itsasgorak eta itsasbeherak, bata bestearen segidan, asko pasatu dira ordutik hona, hondartza hondoratze-hondakinez lorrinduta itxi dute, behinola mara-mara jausitako izartxoak berundu egin dira, pisu eta zama egiten diote bihotzean Eri, isuritako esnea garraztu egin zaio gordelekuan.

Izarrik bako zeruari begira etxeko balkoian dago E, nor edo noren zain balego moduan, inoren zain egon ez dagoen arren, inoren zain

dagoelako plantak egitearen sasoia igaro da eta. Gau-mina da eta gau-minak dakarren haize firi-firiak eskuak beso-sorbalda biluzietara eramanarazi dizkio. Biluztasunean besook sigi-sagaka zeharkatzen dizkioten orbainak haztatu ditu konturatu ere egin barik, berehala aldendu ditu eskuok, bedartzan itsumandoka jolasten sugea haztatzean nola.

Itsasargiaren argi-ilunetan igarotako gauean Gk behin eta berriro ferekatzen zuen azala leun-leuna zen, mertxika-biloa lakoa, haren atzamarrak sigi-sagaka zebilzkion gorputzean zehar gora eta behera, behera eta gora, argindar-bideak haztaka bizkortu eta txinpartaka itxiz.

Laztanek eta ferekek txitximurkaden antza hartu zutenean, Eren azalak ezkatena hartu zuen, behinola leun-leuna izandako azala piko-  
rez eta beltzunez zitzaion bete, argindar-bideak amatatu egin zitzaizkion lehenengo, erre gero, bazter-bazterrean gelditzeko azkenean.

Izarrik bako zerura ematen duen balkoia itxita, oherako bidea hartu du Ek, ez logura delako, lekuz aldatu eta zerbait egitearren baikizik, oheko epeltasunaren bila agian. Eskura datorkion lehen kamisoia jantzi eta sartuko da bertan. Izara artean baina ez dago ez lorik ezta

epeltasunik ere, hotz zuria dagokio han ere zain, hoztu da behinola, itsasargi ondoko belartzan, alkarbanatutako lozakuaren epeltasun gozoa.

Gaua aurrera doa eta puzturik ez baleude biribil-biribil zabalik leudekeen begiekin darrai Ek. Halako baten, hara non entzuten duen etxe-ko atarian pauso-hots ezagun eta beldurgarria, eta, hurrengo, giltzak sarraila-zuloan dagian hotsa. Neoizko iragarkiaren kliska. Dendako atearen kirrinka. Sarrailaren hots lehorra.

Giltzaren birak, birots horrek, berehala geldiaraziko du mundua: haize firi-firiak ez du gehiago joko, orduen joan-etorri etenbakoa neurtzen duen erlojuaren pendulua herdoilak jota bezala geldituko da, Eren bihotz-taupadak azken sistolean dira geldituko, haren arnasotsa airean gorenduko.

Eren buru-bihotzean ideia bakarra da iltzatu-ko: bihar bertan ateko sarraila aldatu behar dut, hori nahikoa ez balitz ate osoa, bestela etxea, edota auzoa, nahikoa ez eta herritik alde egingo dut, eta urrunera joan, ahal dudarik eta urru-tienara, harik eta behinolako itsasargi ondoko belartzara helduta, zero izarratuaren pean etzan eta, begiak zabal-zabalik, izarrei begira-begira gelditu arte.



# Jean Elissalderen *Alemanak* testua

*Ander Manterolari, esker onez*

## *Sarrera*

Lantto honetan Jean Elissalde *Zerbitzari* (1883-1961) idazlearen testu bat argitaratu nahi dugu. Ez dugu uste testu hau beste inon argitaratua dagoenik. “Usteak albo ustela” dio Bizkaiko esaera zaharrak Garibaik bildu zuenez; eta gure usteak albo ustelik izan ez dezan Jean Elissalde *Zerbitzari* idazlearen han eta hemenkako artikulua barreiatuak biltzen ibili gara eta ez dugu argitaratutakoen artean aurkitu. Esan beharrik ez dago testu hau, gure ustean, oso ederra dela, apartetan aparta. Are gehiago esaten ausartuko ginatke, Jean Elissalderen testurik ederrenetakoa dela, antologikoenetakoa. Interes aparta du historiaren aldetik, alemanak Ipar Euskal Herrian 1940ko ekainean sartu zireneko deskripzioa azaltzen duelako; interes aparta du euskara zoragarria darabilelako; interes aparta du alemanen jarrera Azkainen maisuki ematen duelako; interes aparta du testigantza bat finkatu nahi duelako; eta interes aparta du, besteak beste direla, modu zoragarrian idatzia dagoelako.

Artikulu honetako helburua apala da. Azterketa bat egitea baino testu argitaragabe bat fidelki ematea izango da jomuga nagusia. Lantto honetan, beraz, transkripzio zuzen bat eskainiko dugu, iturbegiko ura eskainiko dugu idazlearen lumatik atera

zen bezain fidel. Transkripzio fidel bat eskainiko dugunez gero, ez dugu grafia gaurkotuko *garhaitu*, *orhoitzapen* bezalako hitzak dauden-daudenean emango ditugu. Era berean, *chutitu*, *chakur*, *chich-pak* eta abar ez ditugu *xakur*, *xutitu*, *xixpak* bihurtu. *Etche* bezalako hitzetan ere errespetatu dugu eta idazkera horretan dagoen hitza ez dugu *etxe* batera ekarri.

Iparraldeko tradizio zaharra errespetatu dugu, beraz, *zikhintsuen gatik*, *geroaren gatik*, *guzien gatik* bezalako formak bereiz idatziz. Esan dezagun, azkenik, orrialde bakoitzaren bukaera markatzeko zenbaki bat jarri dugula. Lehen orrialdearen bukaera /1/, eta ebar.

## *Jean Elissalderen Saltsa-Maltsa kaiera*

Jean Elissaldek *Saltsa-Maltsa* kaier edo kuadernoan Azkaine sorterriaren gaineko hainbat atal idatzi zituen. Atal guztiek Lapurdiko Azkaine herria dute ardatz nagusi: azkaindarrak, azkaindar idazleak, Azkaingo apezak, Larrun mendia, pilota Azkainen, eta abar. Eskuidatzi honetako kapitulu gehienak gure idazleak 1952-1957 urteetan *Gure Herria* aldizkarian eman zituen argitara artikulua gisa. Aipatu diren urte horietakoa baino askoz lehenago-

koa da, ordea, *Gure Herrian* argitaratu zen 1928ko “Pilota Azkainen” artikulua. Elissalde zergatik ez zuen argitaratu “Alemanak” atala? Uste dugu arrazoiatariko bat Bigarren Mundu Gerra hurbilegi egotea izan zitekeela. Beste alde batetik testuak argazki benetako eta gordinegia erakusten zuenez, ez ote zen gogortxoegia 1952-1957 bitartean argitaratzeko?

Jean Elissalderen jaiotzaren mendeurrenean Piarres Charriton euskaltzainak Azkaineri buruz argitaraturiko artikulua guztiak liburu batean eman ziruen: *Azkaine gure sorterrria* (Elkar, Donostia, 1985). *Saltsa-Maltsa* eskuidatzian, ordea, argitaratu gabeko bi atal behintzat gordetzen dira. *Folklore* deitzen den atal argitaragabe batekin artikulua osatu eta *Etniker Bizkaia* aldizkarian argitara genuen: “Sesenta y tres creencias recogidas por Jean Elissalde (1883-1961)” in *Etniker Bizkaia* 2003, 225-253 or. Oraingo artikulua honetan bigarren atal argitaragabea emango dugu.

*Saltsa-Maltsa* kaier eskuidatzia, Elissalderen beste eskuidatzi batzuk bezala, Pierre Lafittek eraman zuen Baionako Euskal Museora. Orain Baionako Chateau Neuf-eko euskal bibliotekan kontsulta liteke. Gure eskuidatziak MS 63.43 erreferentzia zenbakia du.

### ***Frantziako eta Ipar Euskal Herriko okupazioa***

Ez dugu euskaraz Bigarren Mundu Gerrako 1940ko alemanen okupazioaz askorik irakurri. Alemanek 1940ko ekainean okupatu zuten Ipar Euskal Herria eta 1942 urteko urte bukaerara arte izan ziren. Ez zuten, ordea, Euskal Herri osoa menpean hartu edo okupatu. Ipar Euskal Herria bi zatitan banatua gelditu zen. Lapurdi osorik eta Nafarroa Behereko ezker alde *Zone occupée* zen eta Nafarroa Behereko eskuin alde eta Zuberoa *Zone libre*. Luzaidetik gora marra bat eginez gero, Arnegi eta Donibane Garazi eta Donazaharre *Zone occupée*

ziren. Eiheralarre, Lekunberri eta abar *Zone libre*. Hiru iturritan behintzat agertzen da okupazio honen berri. Joseph Caminoren *Herria maitez, Eliza maitez* liburuan “Dometch apezka Alemanen demboran” atalean 76-77 or. eta Jose Migel Barandiaranen *Diario Personal volumen II (1936-1953) Durante los años de su exilio en el Pais Vasco continental* liburuan eta Jean Haritschelharri egindako elkarrizketan, *Jakin* 2011 iraila-urria.

Joseph Caminoren Frantzia bi zatitan zatitua zegoela azaltzen duen pasarte bat ekarriko dugu, azkenik, atal honetara. Honelaxe azaltzen du Arnegiko apez argiak:

1940-ean Vichy-ko gobernamentuak eta Alemanek asmatu zuten Frantzia bi partetan ezartzea “Ligne de démarcation” deitu mugari esker: parte bat, Alemanek okupatzen ez zutena, “zone libre” izendatu zuten eta bestea “zona occupée”. Horrek irautu du 1942-ko urte ondarra arte. Arnegi ere bi partetan ezarri zuen muga horrek: Arnegiko karrirka Alemanek okupatzen zuten bainan Ondarla gune libroan. “Ligne de de démarcation” delakoa Baxon, Ondarlako bidean ezarri zuten, guardiano soldadoaren etxolarekin.

Garai hartako gorabeheren testigu argia On Jose Migel Barandiaran izan genuen eta gorago aipatu liburu eta elkarrizketan hainbat zehaztasun irakur litezke.

### ***“Alemanak” atalaren gainean***

Elissalderen *Alemanak* atala pilotaren gaineko atal baten ondoren idatzia da. Hortik, beraz, gure atalaren lehen esaldia: *Zer jauziak egiten dituen gizonaren izpirituak! Pilotatik Alemanetarat joan zauku betbetan gurea. Huna nola. Noiz idatzia dago, ordea, “Alemanak” testua? Itxura guztiak direnez, alemanak sartu ziren egunetan idatzia dago. Testua orainaldian idatzirik dago: *Bada Alemanek beretu dute* [“fronton Chourio” delakoa] (...)*

*Ezen Azkainen dire Alemanak, erresumako azken herrichkan. Aspaldisko huntan phazka nunbeitik ekhartzen dute, eta abar. Bada besterik kontu honetan. Testu hau barne-barnetik eta indar handiz idatzia dago eta guk uste dugu alemanak Azkainen bertan zeudela egin zitekeela bakarrik. Testuak duen barne-indarra, bihozkada eta zarrastakoa halaxe ulertzen dira bakarrik. Testuan dauden hainbat xehetasun ere ezin zitezkeen beste modu batera zerrendatu. Ez da denboraren joanaren talaiatik ondutakoa, idazleak alemanen eraso haragi bizian pairatzen duen unean idatzitakoa baizik. Ohartu besterik ez dago testua nola bukatzen den. Frantses zirenak Xarlemagneren garaian –Prusiano eta Otrichianoak– orain Azkainen dira jaun eta jabe, horregatik aitortzen du: *etsaiak dire!!!**

1940an, hau da alemanak sartu ziren urte berean, Elissalde *“Theophane Venard dohatsua”* testuaren lehen idazketa egin zuen, testuaren hasieran bertan agertzen duenez. Ez ote da, aldeak alde eta aldiak aldi, Hermann Broch-en *La muerte de Virgilio* (Der Tod des Vergil), 1945, elaberriaren antzeko zerbait gertatzen Elissalderen testu honetan ere?

Interesgarria da alde horretatik hainbat konturi ohartzea. Hasieran Lehen Mundu Gerrako edo Gerla Handiko aipamen batzuk egiten ditu, Verduneko Pericard aintzindariaren hilak, esaterako. Ez dugu ahantzi behar Elissalde bera izan zela –Anxuberro idazlea bezala– gerra honen euskal kronista bat. Ohartzekoa da, beraz, *Gerlari ohi batzuek negar egin genuen* dioenean Elissalderen barne-barnetik ateratzen den heia gora bat dela, aitortza hunkigarria.

Ohartzekoa da, era berean, testuaren hasiera-bukaeretan agertzen diren bi detaile. Elissalde xuriaren hitz batek edo bestek hondo handia dute. Azkaine, esaterako, erresumako azken herrixka da, hots, Frantziako erresumako azken herrixka. Azkaine, beraz, ezer bada erresumako herrixka bat dugu. Elizalde gerlari ohia dugu, eta, beraz, frantsesa edo

Frantzia handiaren aldekoa. Gerlari ohia eta Gerla Handiko alemanen kontrako testigua. Hirugarren pasartean berean dio Frantziaren egundainoko eta sekulako etsaiak zirela alemanak. Narrazioaren azken lerroetan, Frantzia izan ziren lurraldeez mintzatzen denean, antzeko ondorioren bat atera dezakegu.

Esan dezagun, bukatzeko, Frantzia aipatzen duenlarik, nola sentitzen zuen Frantzia gure Elissalde.

### **“Alemanak” atalaren ezaugarriak**

Guri dagokigun testuak hiru orrialde letra argiz ondo beteak ditu. Jean Elissalderen eskuidatziak letra argiz izkiriatuak izan ohi dira eta ez ohi dute arazorik sortzen. Gure testu honek, ordea, bi misterio behintzat baditu eta ez da guztiz erraza misterio horiek zulatzea. *Alemanak* atalaren gainean frantsezko ohar bat dator, esku bizkorrez lasterka idatzitako ohar bat, itxurak direnez. Testu horren transkripzioak zalantza bat baino gehiago sortu dizkigunez gero, Deustuko frantses irakasle den Violeta Garziagana jo dugu, eta bai prestuki lagundu ere. Testuak sortzen dituen zalantzak argitu ondoren honelaxe irakurtzen da:

Signaler que discrettement les Allemands ont fusillé un des leurs à Azkartzun, et l’ou sans doute- à moins qu’ils ne l’aient incinéré, enterré par là. Plus tard si un savant trouve ses os, que dira-t-il<sup>1</sup>?

Ohar hau Elissalde berak egin da, dudarik gabe. Ohar honetan alemanek beren arteko bat fusilatu dutela esaten da Azkaineko edo inguruko leku batean. Non, ordea? Nola transkribatu behar ote da *Azkartzun*? Azkaineko edo inguruetako toponimo hau ez dugu argi ikusten. Seguru gaude erdiko –*zkartz*– hizkietan, hasiera-bukaerez, ordea, ez.

Hasierako testu honez gainera, lehen orrialdean bigarren lerrokadan, hiru lerroko testu bat eza-

## — Hlemanak. —

Her jauziak egiten dituen gizonaren izpirituak! Pelotatik Hlema-  
netarat joan zaueku betbetan gurea. thuna nola. Ezkainen badugu  
plaza berri eder bat, «fronton Chourio» erraiten ditena eta Tebidart  
erretor zenak eginarazia. Dada, Hlemanek beretu dute, han taulazko  
atربة batzuetan berragoibat zaldi atchikitzeke, gutienatik .....

Ezen Ezkainen dire Hlemanak: erresumako azken herrichkan! Nak  
bekar zuen hori erran: urte ginen gerla-thandeko hil gaichoek etzutela  
holako sakrileiorik utziko, eta, bertze orain, berdunen Feriocard aintzin-  
dariaren hilak bezala, chutituko zirela beren orhoitzapene ko harriaren  
gibelean «etsaria» ferritz garhaitzeke! Ez, eta Hlemanak gutartean  
ditugu, gure naudi, etcheen naudi, ororen naudi! Berrehun gizon buru  
zuri eta ehun eta hiruetan hogoit hamabortz zaldi, hamasei kanoi go-  
thorretan .....

Ez dakigu liburuek zer erranen duten, hemendik ehun urteren buruan  
eta gero, 1939-1940<sup>eko</sup> gerlaz. Ez dakigu gure ondokoek zer pentsatuko  
duten lezaren ondo-ondoraino, ez alderaino, ereman gaituzten Blum,  
Herriot, Cot, Daladier, Chautemps eta bertze chori madarikatuez! Dakiguna  
da politikero zikhintzuen gatik Hlemanak Ezkainen ditugula! Zer zarrag-  
takoa bihotzean, beren kanciekin berri luzean gure plaza politean geldit-  
tzen kusi gintuelarik, eta aintzindarien marumak adite ilhuntez batz!  
Gerlari ohi batzuek nigar egin ginen. Danian orotar at egiten da gizona  
eta orai deus guti egin lezagukete munduko Hleman guziek ere, herriko  
reskatcha dohakabe batzu iriz eta farraz ikusten ez bagintu herekin, guzien  
gatik Frantziaren egundainoko eta sekulako etsaiak direla ahantzirik!!!  
~~Hlemanak~~ ~~gurea~~ ~~herriko~~ ~~erretor~~ ~~zenak~~ ~~eginarazia~~, ~~eta~~ ~~berdunen~~ ~~Feriocard~~ ~~aintzindariaren~~ ~~hilak~~ ~~bezala~~, ~~chutituko~~ ~~zirela~~ ~~beren~~ ~~orhoitzapene~~ ~~ko~~ ~~harriaren~~ ~~gibelean~~ «etsaria» ferritz garhaitzeke! Ez, eta Hlemanak gutartean ditugu, gure naudi, etcheen naudi, ororen naudi! Berrehun gizon buru zuri eta ehun eta hiruetan hogoit hamabortz zaldi, hamasei kanoi gothorretan .....

Hlemanak herrian ditugunaz geroz, geroaren gatik dezagun  
erran hemen nola kokatu diren eta zer urha to ibili dituzten. Doren 175  
zaldiak — arruntean alimalako zaldi batzu — harat eta hurat parti-  
tuak dituzte: badituzte Chimeldegian, Camburinenean, Ezkubean,  
Pilibabartan, Laurentzeran, Ederkoenean, Tubiburun, eta Chourion.

baturik ikusten dugu. Testu honi jira eta bira bat baino gehiago eman badizkiogu ere, ezin inondik inora ere transkribatu. Hasierako oharra euskaraz jarri ote du eta gerora ezabatu? Harrigarria da, inolaz ere, Elissalderen eskuidatzietan hiru lerro erabat ezabaturik ikustea, hain zen txukuna eta eskuidatziak argi eman nahia!

### ***Testua hobeto ulertzeko oharrak***

Hitzen bat edo beste nahasgarri gerta dakiok bati baino gehiagori. *Egia erran, jaun horiekin ez da jostetarik: lotsagarriak dira beren chichpak* diotenean beldurgarriak direla beren armak, “eskopetak” batez ere esan nahi du. Esaldi batek dudak sortu dizkigu: *Beribilak gerla hastean gutitu ziren: orai ez da gehiago bakhar-bakhar zenbeit baizik ikusten: jendea ez dabila gehiago pirripiten puntan baizik*. Kotxeak gutitu direla dio eta jendea ez dabilela bizikletan baizik ulertzen dugu, lehen irakurraldian. *Pirripita*, bestaldeko literaturan, bizikleta

edo “txirindula” adierazteko erabiltzen da. Elissaldek berak ere badarabil beste testu batean. Esaldi hori, ordea, beste modu batera ere ulertu ote daiteke? *Pirripitan* “bizkor” esan nahi du eta ez ote du esan nahiko gauza bera *pirripiten puntan* esapide adberbialak? Arraro gelditzen da bestela, lehen esanguran ulerturik, jendea “bizikletan puntan” ibiltzen dela. Jentea bizkor ibiltzea, beldurrarren, ulergarria da hurrengo esaldian agertzen den ideiarekin lotzen baita. Jendea bizkor dabil, bata bestearen aldean edo ondoan ibili beharrean bata bestearen atzean dabil, lertxunak zeruan bezala. Eta hala ez dabiltzanei *amandatto* bat edo multa bat kenduko diete.

Lehenengo etorri ziren alemanek *bekunde gaichtoko gizonak* omen ziren. Betosko edo bekosko bildurgarriko gizonak esateko esapide zoragarria. *Bavarresak ahopaldi tzarrak* esaten omen zituzten. Berbeta txarrekoak zirela adierazteko, *txori gorriak* esaten zituztela...

## **ALEMANAK**

Zer jauziak egiten dituen gizonaren izpirituak! Pilotatik Alemanatarat joan zauku betbetan gurea. Huna nola. Azkainen badugu plaza berri eder bat “fronton Chourio” erraiten diotena eta Debidart erroter zenak eginarazia. Bada, Alemanek beretu dute, han taulazko atherbe batzuetan berrogoi bat zaldi atchikitzeke, gutienetik...

Ezen Azkainen dire Alemanak: erresumako azken herrichkan! Nork behar zuen hori erran: uste ginuen Gerla-Handiko hil gaichoek etzutela holako sakrileiorik utziko, eta, bertze orduz Verdunen Pericard aintzindariaren hilak bezala, chutituko zirela beren orhoitzapenezko harriaren gibelean “etsaia” berritz garhaitzeko! Ez, eta Alemanak gutartean

ditugu, gure nausi, etcheen nausi, orenen nausi! Berrehun gizon buru zuri eta ehun eta hiruetan hogoita hamabortz zaldi, hamasei kanoi gothorrek...

Ez dakigu liburuek zer erranen duten, hemendik ehun urtheren buruan eta gero, 1939-1940eko gerlaz. Ez dakigu gure ondokoek zer pentsatuko duten lezearen ondo-ondoraino, ez alderaino, ereman gaituzten Blum, Herriot, Cot, Daladier, Chautemps eta bertze chori madarikatuez! Dakiguna da politikero zikhintsuen gatik Alemanak Azkainen ditugula! Zer zarrastakoa bihotzean, beren kanoiekin lerro luzean gure plaza pollitean gelditzen ikusi gintuelarik, eta aintzindarien marrumak aditu ilhunte batez! Ger-



lari ohi batzuek nigar egin ginuen. Bainan orotarat egiten da gizona eta orai deus guti egin lezagukete munduko Aleman guziek ere, herriko neskatcha dohakabe batzu irriz eta farraz ikusten ez bagintu heiekin, guzien gatik Frantziaren egundainoko eta sekulako etsaiak direla ahantzirik!!!

Alemanak herrian ditugunaz geroz, geroaren gatik dezagun erran hemen nola kokatu diren eta zer urhatsak ibili dituzten. Beren 175 zaldiak –arruntean alimaleko zaldi batzuk– harat eta hunat partituak dituzte: badituzte Chimeledegian, Tamburinean, Azkubean, Pilipabaitan, Laurentzengan, Ederkoengan, Zubiburun, eta Chourion. /1/ Bertze nunbeit ere ba menturaz. Aspaldisko huntan phazka nunbeitik ekhartzen dute: menturaz Alemaniatic. Haste hartan herriko selhauruetan ez dute ez belhar ez lasto ondo bat utzi, eta Azkaine ongi larrutu ondoan Sempererat jo zuten...

Soldadoak etcheetan aloitzen dire, Irigoinean, Mugetcheberrian eta guziz herriko jantoki hobere-netan; hôtel de la Rhune, pension Basque, Etchola. Beren jatekoa beren gain dute haatik. Ez dute hain muthur zuriak iduri janaren gainean, eta begitarte ederra egiten diote gure chakurrek utz letzaketen saltsa batzueri! Zer arrotzte jaleak haatik! Bospasei, bakharrak ez aski! Aintzindariak eta soldadoek jateko bertsua dute. Eta ez batzuek ez bertzek ez dute arnorik edateko...

Nola deramate beren dembora Azkainen? Argi-ko chutik, ez dute ilhuntze arte esku eta besorik hainitz gurutzatzen: jo eskuin, jo ezker, bethi malobran. Igande arratsaldeak denik ere librochago... gure pilotari ederreri beha egoiteko, edo ingurueta-ko edari guzien zurrutatze! Lehenik Azkainerat ethorri zirenek zer mozkorrak etzituzten biltzen!

Beren mugazainak badituzte Alemanek. Autrichiako eskualdekoak oro, Azkainen bederen. Ez dakigu beren herrian mugazain horiek mendi handirik bazuten zaintzeko. Hemen, Larrungo mendia

ederki zaintzen dute eta ez da aspaldiko demboretan kontrabanda handirik sartu Espainiatik hunat ez eta joan hemendik Espainiarat. Egia erran, jaun horiekin ez da jostetarik: lotsagarriak dire beren chichpak bizkarrean nunbeit agertzen direlarik! Dembora hortan mugazain frantsesek ez dute deus egitekorik... beren baratzearen arthatzea baizik, edo manuz han-harat Frantzia barna hortarat joaitea...

Arratsa heldu delarik, athe-leiho guziak ongisko hetsi behar dire, barneko argia ez dadien kampotik ikus, eta manu hori ahanzten dutenak... laster orhoitarazten dituzte Alemanek, lehen aldian presundegiaz mehatchatuz, bigarrean preso eremanez!

Beribilak gerla hastean gutitu ziren: orai ez da gehiago bakhar-bakhar zenbeit baizik ikusten: jendea ez dabila gehiago pirripiten puntan baizik. Bainan ez gaitela bat bertzearen aldean abia norapait, edo laster hamar liberako amandatto bat atchemanen dugu: bat bertzearen ondotik behar dugu ibili, lertsunak bezala./2/

Bichtan da ez dela deus keinurik egin behar Alemanen kontra: ez da ere zeren heien kontra zerbeit erran. Bizitzen ikasi nahi othe daukuten! Baginuen beharra. Elgar ez ginuen gehiago ikusi nahi, elgar ez ginuen gehiago jasaiten ahal: batek bertzea jan nahi ginuen hauzotik hauzorat.

Orai arte Azkainen aldizkatu diren Alemanak protestant ziren gutiz gehienak. Katolikoak ere izan dire bizkitartean eta noizetik noizerat beren elizkizunak bazituzten: meza, prediku, othoitz eta kantu. Mugazainetan bakhar batzu herriko meza-bezpereri bereri aski jarraikitzen dire, eta herrian oro ohar-tuak dire arras ongi daudela elizan, beren liburua eskuan!

Alemanian eskualde hainitz bada. Eskualde bakhotcheko jendea arras bertze eskualdekoetarik berezia da. Orai arte ez dugu Azkainen Prusiano, Otrichiano eta Bavarresik baizik ikusi.

Prusianoak jabetu ziren gure plazaz lehen eguean. Bekunde gaichtoko gizon batzu ziren, ileak erotik moztuak, churtchuri alimale batzu bezen handiak. Idorrak, Azkaine gaichoa harritua atchiki zuten ilhabete pare batez. Hainitz gochoago ziren ondotik ethorri zitzauskun Otrichianoak, bainan buhami hutsak: oro, heienak ziren! Beharrik etzizutzen utzi hemen zahartzerat! Gure haur demboran Otrichiak erresuma berezi bat egiten zuen Hongriarekin. Bainan ez ditake asma zer saltsa zen hor: Aleman, Tcheko, Rumano, Turko, Serbiano, Polones, Italiano eta Judu, oro nahas-mahas! Holako erresuma batek ez dezake iraun: Hitler jabetu zi-

tzaion eta orai ez da Alemania-Handiko zathi bat baizik...

Otrichianoen ondotik, Bavarresak ethorri ziren. Sei ilhabete huntan hemen ditugu. Bada frango arras polliki frantsesaren ikasten ari denik. Badire zenbeit “pala ancharekin” pilotan arras ongi hasiak direnak. Ahopaldi tzar batzu ere erotik ikasi dituzte, nunbeitik! Bavarresek balukete Prusiano eta Otrichianoek baino jendetasun gehichago. Ez dute herriko jendea zangopean atchiki nahi, aintzinekoek bezala. Egia erran, Frantses ziren... Charlemagne enperadorearen demboran! Horrengatik, daudela beren uliekin: ez gitela adichkide heiekin: etsaiak dire!!!

## OHARRAK

<sup>1</sup> Frantsesezko testuak baditu huts zenbait. Honela izango litzateke tildeak zuzendurik: Signaler que discrètement les Allemands ont fusillé un des leurs à Azkartzun, et l’où sans doute –à moins qu’ils ne l’aient incinéré, enterré par là. Plus tard si un savant trouve ses os, que dira-t-il?

Erdarazko itzulpena: Señalar que discretamente los alema-

nes han fusilado a uno de los suyos en Azkarsun, donde sin duda –a menos que lo hayan incinerado– lo [han] enterrado por allí. Más tarde si un sabio encuentra sus huesos, ¿qué dirá?

# “Anderea gorarik” baladagaiaren hiru eredu ezezagun

*Jesus Etxezarragari, aspaldiko partez*

## *Sarrera*

Lan honetan *Anderea gorarik* baladaren hiru eredu argitaragabe transkribatu eta iruzkindu nahi ditugu. Hiru eredu hauek mugaz haraindiko hiru lurraldeetakoak dira Lapurdikoa, Baxenabarrekoa eta Zuberoakoa. Hiru ereduok zein baino zein interesgarriagoak direla iruditzen zaigu. Gure helburu nagusia, bestetan bezalaxe, hiru ereduon transkripzio fidela ematea izango da.

Lehen eredia Lapurdikoa da, Parceval jatsuarrena<sup>1</sup>, bigarren eredia XIX mendean Jean Baptiste Archu zuberotarrak bildua dugu. Archu zuberotarraren deitura halaxe irakurtzera ohituak gaude –ch– erdal bigrafoa duela, *Chaho* bezala, eta halaxe idatzi ohi dugu gehienetan euskaraz ari garela ere. Geure euskal hizkuntzan, ordea, *Arxi* izan beharko luke. Bigarren eredu honetako lehen ahalpaldia Francisque-Michel mediebalistak 1850 urtean argitaratutako *Le Pays Basque* liburuan argitara zuen. Guk, ordea, osorik emango dugu artikulua honetan. Azken eredia Lezarte kaierekoa da. Hiru eredu hauek balada interesgarri baten ale bikainak dira gure ustez. Eskuidatzietako lozorrotik atera eta moldezko letretara ateratzea izango da, beraz, gure helburu nagusia.

*Anderea gorarik* baladak badu balada zaharren kutsu zoragarria. Balada honetan zaldunak eta damak agertzen dira. Zalduna edo zaldizkoa ezkurtaria da kasu honetan, eta, urrutietan jaun handiagobaten zerbitzari ibili ondoren, bere etxera hurbiltzen da. Denbora luzean ibili da zaldizkoa bazter urrunetan, Frantzia, Espainia eta Europa guztian. Zaldizkoa itzultzen den etxea, ez dugu edozein etxe irudikatzen, jauregi, gaztelu edo handietxe bat, edozein modutan ere.

Lan honetan eskainiko dugun transkripzioarekin batera jatorrizko kaieretako eskuidatziaren argazkia ere eskainiko dugu.

## ***Anderea Gorarik baladaren argudioa***

Gure baladagaiaren argudioa ama-semeen arteko elkarrizketa bat da, nagusiki. Honela laburbilduko genuke hitz bitan. Emakume baten senar-semeak urrutietan, hainbat urtez, gerran edo jaun baten menean ibili dira. Urte asko pasatu ondoren –zazpi urte eredu gehienetan– semea bere etxera itzultzen da eta ostatua eskatzen dio amari. Amak ohea ez ezik, bere burua ohelaguntzat ere eskaintzen dio semeari. Amak bere burua eskaini ondoren semearen aurrean dagoen juzkua egiten du. Seme hau

aldaera gehienetan –ezagutzen den guztietan esaten ausartuko nintzateke– lehen semea edo seme zaharrena izan ohi da. Semeak, orduan, bere ezaupidea eman beharrean, inoiz ere ez duela bere bururik agertuko esan ohi du. Semearen azken baieztapen hauek, gehienetan, *impossibilia*<sup>2</sup> bitartez eman ohi dira.

Baladagai hau eskena bakarrekoa izan ohi da. Elkarrizketa hutsez osatua dago. Elkarrizketa amebeto bat izan ohi da, lehen ahapaldia semearena da, bigarrena amarena, eta abar. Giuseppe di Stefano ikertzaileak zioenez, Omega balada bat izango genuke. Istorio bat hainbat eskenatan denboran zehar kontatu beharrean (Alfa baladak ikertzaile italiarrantzat), eskena bakar batean kontatzen da. Eskena bakar batekoak dira, esaterako –gure baladarekin antzera handia duena neurri handi batean–, *Lexibatxoa* bezala ezagutzen duguna.

Baladagai honetan ama-semeen arteko autu edo elkarrizketa zuka izan ohi da. Zuka hasten da semea zuka zuzentzen zaiola (gorarik zaude) eta amak zuka erantzuten diola. Amak zaldizkoa semea dela konturatzen denean, ordea, hika zuzentzen zaio. Amaren semearenganako tratamendua da hika, eta inoiz ere ez alderantziz. Artikulu honetan eskaintzen diren hiru eruedetan garbiri eta argiro ikusiko dugu kontu hau. Parcevalen eruedan seigarren ahapaldian (*hi oté hays éné léhén semia?!..! es duc isanen amaren barcamendua*), Arxürenean seigarren ahapaldian (*erran duzadac eghia, othoi, eni eghia*), Lezarterenean bosgarren ahapaldian (*es othe hissa éné lehen semia?!..! ehuké hébén hanitch demboran bissia.*). Amak hika egiten dionean semeari –ama hasten baita beti hika egiten– semeak beti eredu guztietan zuka erantzuten dio.

Gure balada honek merezi izan ditu gure artean ikerketa bat baino gehiago. Aipagarrienen artean Louis Dassanceren “Chronique de la chanson basque: Anderea Gorarik”, in *Gure Herria* (1963), 314-320 or.

### *Lehen eredia Parceval jatsuarrena*

Henri Parceval Jatsu Munjogainekoaren eredia transkribatuko dugu atal honetan. Eredua ez dugu beste inon aurkitu. Eredua honek, jakina, ez du berritasun handirik baina dituentxoak ere –balada aldaera gehienetan bezalaxe– interesgarriak dira. Eredua eskaintzeko Parceval jatsuarren kaieretik egingo dugu. Kaier edo eskuidatzian zabar xamar idatzia dago, baina hala ere ez du transkripzio-arazorik sortzen. Falta du, esaterako, inesibo markaren bat (artia, denia), hitz bera modu bitaria idatzia dago (frantzian, frantian), eta abar.

1

Anderia goraric saude leuan  
Suré senara béhera dago frantzian  
hura handic jenditacé jen artia  
Escotaris har nesasu etchian

2

Ene senara behera dago frantzian  
hausuac onac utziseraiesten juatian  
hausuac onac utzi seraisten juatian  
Escotari beharic esdut echian

3

Isanusu frantian étata espainian  
bait éta éré engéléteré gusian  
Andria frango basen hoyetan dénétan  
suré pareric etzen en begietan

4

Escotaria baducésu bai austatu  
gambéra beri ohia churi ducesu  
gambéra beri ohia churi ducesu  
Eta anderia aldian isanen dusu

5

Esceric asco oy etceco anderia  
 Suré senara ni baino gison hobia  
 Saspi urtés harec<sup>3</sup> eman daute ogia  
 Sortzi garenian béré aspico saldia

6

Estaris begi urdin tzar faltzua  
 hi oté hays éné léhén semia  
 Egin artian subi aspian ogia  
 Eeduc isanen amaren barcamendua

7

Sagardia betétzedenia udarez  
 sésén churia erditzen denian chabalés  
 Sesen churia erditzen denian chabales  
 Eranén deraitzute sure semia naisen alez

Zazpi ahapaldiko eredu honek baditu huts nabar-  
 menak. Eskuidatzian, esaterako, *chabales* irakur-  
 tzen dugu, baina *chahales*-z izan beharko luke.  
 Zergatik ote da lapurteran *aretzelaretxe* delako jato-  
 rrizko hitza? *Ezkutari* hitza bezala desitxuratu egin  
 ote da ezagutzen ez delako?

9

Honbertze urte' bixi ioan gura biac legares agrados  
 brai eta fete tich tata autamec yacomec geros  
 gomoduca soon handia den diris es daitaci eros  
 hori dela medio gura biac bisco malurus

1

Anderia gorare paude leuan  
 Lure' senara behera dago frantziar  
 hura handi genditaci gen artia  
 Escotans har nesasu etchuan

2

Ene senara behera dago frantziar  
 hauruac orac utgi serausten quathan  
 hauruac orac utgi serausten quathan  
 Escotan beharic esdut echan

3

Iranusu frantziar itata espainian  
 hait eta eie engiletosi' gusan  
 Hondua fango basen hoyetan lontan  
 suri parotic etjen en begeton

4

Escotans baducisu bai anstata  
 ganbera beri ohia churi ducesu  
 ganbera beri ohia churi ducesu  
 eta enderia aldean isanen diru

5

Esceric asco oy etceco anderia  
 Lure' senara ni baino gison hobia  
 Saspi urtés harec eman daute ogia  
 Sortzi garenian béré aspico saldia

6

Estaris begi urdin tzar faltzua  
 hi oté hays éné léhén semia  
 Egin artian subi aspian ogia  
 Eeduc isanen amaren barcamendua

7

Sagardia betétzedenia udarez  
 sésén churia erditzen denian chabalés  
 Sesen churia erditzen denian chabales  
 Eranén deraitzute sure semia naisen alez

### *Parcevalen eredia gaurko grafian*

Eredu honek, berritasun handirik ez badu ere, merezi du gaurko grafiara aldatzea. *Eskutari/ezkutari* hitza ezezagun eta arraroa izan behar zuen balada-transkribatzailearentzat apurren bat desitxuratua dagoelako: *eskotari, estaris...* Baina kontu hau baladagai beraren beste eredu askotakoa dugu. Dardarkariak biguinduak agertzen dira, batez ere Zuberoako testuetan ikusten dugun problema bera dugu.

1

–Anderia, gorarik zaude le[i]uan,  
zure senar[r]a behera dago Frantzian.  
hura handik jin ditakeien artia[n]  
ezkutari har nezazu etxian.

2

–Ene senar[r]a behera dago Frantzian,  
hauzuak onak utzi zeraizten juatian,  
hauzuak onak utzi zeraizten juatian  
ezkutari behar[r]ik ez dut etxian.

3

–Izan nuzu Frantzian eta Espainian,  
bai eta ere Engeleter[r]e guzian.  
Andria frango bazen hoietan denetan,  
zure parerik etzen en[e] begietan.

4

–Ezkutaria, badukezu bai ostatu,  
ganbera ber[r]i, ohia xuri dukezu,  
ganbera ber[r]i, ohia xuri dukezu  
eta anderia aldian izanen duzu.

5

–Esker[r]ik asko, oi etxeko anderia,  
zure senar[r]a ni baino gizon hobia.  
Zazpi urtez harek eman daut ogia  
zortzigar[r]enian bere azpiko zaldia.

6

–Ezkutari begi urdin tzar faltzua,  
hi ote haiz ene lehen semia?  
Egin artian zubi azpian ogia,  
ez duk izanen amaren barkamendua.

7

–Sagardia betetzen denia[n] udarez,  
zezen xuria erditzen denian xahalez,  
zezen xuria erditzen denian xahalez,  
er[r]anen deraitzut zure semia naizen al[a] ez.

Atal honetan hainbat arazo sortzen zaizkigu gaurkotze kontu honetan. Nola transkribatu behar dugu *eskutari/-z* edo *eskotari/-z*, *jen* edo *jin*, eta abar. Horrexegatik dugu interesgarria betiere eskuidatziaren transkripzio zuzena egitea.

Gainerako ereduaren ikusian ezer berririk aipatzekotan, gehienetan *ezkutari bilo urdin faltzua* ikusten dugu. Hemengo honetan eskainiko dugun Zuberoako ereduaren bezalaxe *begi urdin* agertzen da ondoren *tzar* duela. *Sagardi* hitza ere ez dugu uste inongo aldaeratan agertzen denik.

### ***Bigarren eredia: Arxiuren aldaera argitaragabea***

Atal honetan eskainiko dugun eredia XIX mendean bildu zen bakarra dugu. Oraintsu ikasi dugunez, Francisque-Michelek ez zituen berak zituen euskal testu guztiak argitaratu. Zenbaitetan balada edo khantore baten lehen ahapaldia baino ez du eskaintzen *Le Pays Basque* liburuan. Guk dakigula, *Anderea gorarik* balada ez dago bildua XIX mendeko bilketetan. Ez dator ez Xahoren kantutegian ez J. D. J. Salaberriren *Chants populaires du Pays Basque* 1870 urteko liburuan ez beraren paper argitaragabeetan ez Madame Villehelioren *Souvenir des Pyrénées* ez Hiribarrenen paperetan ez eta Duvoisinen kaieretan ere. Francisque Michelek balada honen gaineko ahapaldi bakarra dakar

1857ko *Le Pays Basque* liburu famatuan. Pentsatzekoa da Erdi Aroko kutsu handia duen balada honek (jaun handi baten ezkutari ibili den jaun gazte baten eta dama baten arteko solasek ez ote dute halako zahar aire bat?) mediebalista batentzat ale aparta eta estimatua izan behar zuela.

Francisque Michelek, beraz, aipamen hau egiten du 424-425 orrialdeetan:

“Plus nombreuses encore sont les chansons composées dans le but de stigmatiser le vice et de flétrir le scandale. A celles que j’ai données, j’aurais pu ajouter un dialogue qui a dû prendre naissance dans le environs de Saint-Jean-de-Luz. Il est relatif à la femme d’un marin, peu vertueuse à ce qu’il paraît et commence ainsi:

Andere ederra, gora zaude leihoan,  
Zure senharra behera dago Frantzian  
Houra handic jin dateken artian  
Ezcutari nahi nuzia etchian?”

Francisque-Michel mediebalistak ahapaldi honen ondoren itzulpena dakar. Itzulpena zuzena izan arren, azken *Ezcutari nahi nuzia etchian* galdera ez dago hitzez hitz itzulirik. Galdera horretako *ezkutari* hitzaren itzulpena ez dugu inon ikusten. Zeharka itzulirik ikusten dugu *Voulez-vous me donner audience chez vous?*

Diogunaren beste erakusgarri bat dugu 528 orrialdekoa. Orrialde horretako oin-oharrear Etxahunen *Sohütako ezteietan* (1841) khantorearen ahapaldi bakarra eskaintzen du. Tankera horretako kantu osagabe gehiago ere badaude Francisque-Michelen lanean.

Gaur den egunean, zorionez, hutsune horietako zenbait osatzeko moduan gaude. Arxüren kaier batek eredu osoa eta azalpena transkribatuko dugu. Eredu osoa transkribatzea guztiz interesgarria dela deritzagu. Galdurik genuen eredu, osatzea guztiz interesgarria da. Francisque-Michelek osorik agertu ez zuena, euskaraz dugun eredurik zaharrena bezain bitxienetakoa dugu, inongo duarik gabe. Dugun zaha-

rrena, Arxük bere kaiera 1841ean datatzen duelako, eta dugun bitxienetakoa, azken bi ahapaldiek irudi ezezagunak agertzen dizkigutelako. Hona hemen Arxüren eskuidatziko 41 zenbakian *Dialogue* izenburuaren azpian agertzen den bezalaxe:

–Andere ederra, gora zaude leihoan,  
Zure senharra behera dago Franzian;  
Houra handic jin dateken artian  
Eskutari nahi nuzia etchian?

–Ene senharra izanic gatic franzian  
Hauzoac hounic utzi dauzkit aldian,  
Hauzoac hounic utzi dauzkit aldian.  
Eskutari beharric eztut etchian.

–Izatu nuzu Espainian, Franzian,  
Anglaterran eta Eropa guzian,  
Andere ederrac ikhoussitut aldian:  
Zure pareric eztaite izan mundian.

–Eskutaria, ederki zira minzatu;  
Zure etzateco etchian badut ostatu;  
Ohe ederrian lo ere eghinen duzu  
Ene aldian, zuc plazer baduzu.

–Andere ederra, hori da klarki minzatzia,  
Zure senharra, ni baino hobia,  
Zazpi ourthez eman izan daut oghia,  
Zortzi gherrenian bere azpico zaldia.

–Arramuiaren hostoaren pherdia!  
Ezpeitu galzen behin ere koloria,  
Erran duzadac, othoi, eni eghia,  
Hi othe izanez ene lehen semia.

–Mariñelac itsasoa trabesatzen,  
Ourthe hortan manobra hanitz eghiten.  
Kosta heghian sablia denian finitzen,  
Erranen dauzut heia zure semia ninzen.

41

## Dialogues.

- Andere ederra, gora xaube leihoan,  
Zure senbarra behara dago Frankian,  
Hura handie jin datoken artian  
Eskutari nahi nuxia etchian ?
- Ene senbarra irani gati frankian,  
Haurvax honnie utxi daukit albian,  
Haurvax honnie utxi daukit albian.  
Eskutari beharrie extul etchian.
- Itatu nuxu Espainian, Frankian,  
Anglaterran eta Europa guxian,  
Andere ederrak ikhuzjitu albian.  
Zure pareric extaiti izan mundian.
- Eskutaria, edertki zira minxatu,  
Zure etxateko etchian badut ostatu,  
Ohe ederrian to ere eghinen duxu,  
Ene albian, zue plaxer badukut.
- Andere ederra, hori da klarki minxatxia,  
Zure senbarra ni baino hobia,

Lazpi ourther eman izan daut oghia,  
Zotxi ghemonian bere aspice xalbial.

- Arramuiaren hortvaren pferdias!

Expeitu galxen behin ere koloria,  
Erran durada, othoi, eni eghias,  
Hi othe izanex ere lehen senias.

- Marinelsec itsasua trebesatzen,

Ourther hortan manobra hanitz eghiten.  
Hosta heghiay tablia deniay finitzen,  
Erranen daukut heia zure senia minxey.

cette chanson a dû prendre naissance  
dans les environs de St. Jean de Luz.

Elle a pour objet la femme d'un marinier,  
laquelle était, à ce qu'il paraît, peu vertueuse.  
Amour, tu perdis l'ivoire et tu fais  
souvent oublier la fidélité conjugale.



Cette chanson a dû prendre naissance dans les environs de St. Jean de Luz. Elle a pour objet la femme d'un marinier, laquelle était, à ce qu'il paraît, peut vertueuse. Amour, tu perdis croire et tu fais souvent oublier la fidélité conjugale.

Testu honek, zorionez, ez digu eragozpenik eman Arxüren esku-letra argia delako. Arxüren transkripzioen ezaugarri gehienak ditu transkripzio honek. Alde batetik ortografia berezia. Errazenez nabaritzen da *eghinen* (4 ahapaldian), *oghia zortzi gherrenian* (5. ahapaldian), *eghia* (6 ahapaldian), *eghiten* (7 ahapaldian), *kosta heghian* (7 ahapaldian). Era berean deklinabide atzizkiak ia beti –c batez eta hitzak transkribatzeko, ordea, k batez egin ohi ditu. *Eskutari*, *klarki*, *dauzkit*, eta abar. Deklinabide atzizkietan *handic*, *izanic gatic*, *hounic*, *pareric*, eta abar. Salbuespen bakarra litatzeke *etza-teco* forma.

Arxük ikusten badu kanturen batek berebiziko garrantzia izan dezakeela azalpenen bat jartzen du frantsesez kantuaeren ondoren. Gure baladaren kasuan ere azalpentxo argigarri bat ematen du frantsesez.

Interesgarria da, behin kontuak honetara, Francisque-Michelek ez duela Arxüren frantses azalpena dagoen-dagoenean transkribatzen. Francisque-Michelek Arxüren frantses testua ia hitzez hitz kopiatzen du, noizean behin tautologia txiki bat eginez. Hona testu biak:

ARCHU: Cette chanson a dû prendre naissance dans les environs de St. Jean de Luz. Elle a pour objet la femme d'un marinier, laquelle était, à ce qu'il paraît, peut vertueuse. Amour, tu perdis croire et tu fais souvent oublier la fidélité conjugale.

FRANCISQUE-MICHEL: "Plus nombreuses encore sont les chansons composées dans le but de stigmatiser le vice et de flétrir le scandale. A celles que j'ai données, j'aurais pu ajouter un dialogue

qui a dû prendre naissance dans le environs de Saint-Jean-de-Luz. Il est relatif à la femme d'un marin, peu vertueuse à ce qu'il paraît et commence ainsi:

Bi testu hauek erkatzean garbi ikusten dugu nola jokatzeko duen Francisque-Michelek.

### *Arxüren testua gaurko grafiara ekarririk*

Atal honetan gaurko grafiara ekarriko dugu Arxüren testua. Lanketa erraza dugu gaurko grafiara ekartzea. Testuari gagozkiola, lehen bost ahapaldiak ezagutzen ditugun *Anderea gorarik* baladagaiko gainerako aldaeren antzekoak ditugu. Azken bi ahapaldiek, ordea, berritasun nabarmenak dakartzate.

1

–Andere ederra, gora zaude leihoan,  
zure senharra behera dago Frantzian.  
Hura handik jin dateken artian  
ezkutari nahi nuzia etxian?

2

–Ene senharra izanik gatik Frantzian,  
hauzoak hunik utzi dauzkit aldian,  
hauzoak hunik utzi dauzkit aldian,  
ezkutari beharrik ez dut etxian.

3

–Izatu nuzu Espainian, Frantzian,  
Anglaterran eta Europa guzian,  
Andere ederrak ikhusi tut aldian,  
zure parerik ez daite izan mundian.

4

–Eskutaria, ederki zira mintzatu,  
zure etzateko etxian badut ostatu,  
ohe ederrian lo ere egingen duzu,  
ene aldian, zuk plazer baduzu.

5

–Andere ederra, hori da klarki min[t]zatzia,  
zure senharra ni baino hobia.  
Zazpi urthez eman izan daut ogia,  
zortzigerrenian bere azpiko zaldia.

6

–Arramuiaren hostoaren pherdia!  
Ezpeitu galtzen behin ere koloria.  
Erran duzadak, othoi, eni egia,  
hi othe hizanez<sup>4</sup> ene lehen semia.

7

–Mariñelak itsasoa trabesatzen,  
urthe hortan manobra hanitz egiten,  
kosta hegian sablia denian finitzen,  
erranen dau(t)zut heia zure semia nin[t]zen.

Duda bat edo beste izan dugu gaurko grafiara ekartzean. Jatorrizko *Eropa* bere horretan utzi dugu eta ez *Europa*, halaxe esango zelakoan.

Testuari gagozkiola, egiaz Donibane Lohizune ingurukoa ote da Arxük idatzi eta Francisque-Michelek argitaratzen duenez? Ez ote du Arxü azken ahapaldiak itsutu. Izan ere, azken ahapaldiko *impossibilia* delakoa kostako irudi bat duela egiten du. Testua gure ustez Baxenabarrekoa da. Hona zenbait froga. Lehen ahapaldian agertzen den *jin* aditza lapurtera baino ekialdekoagoa da. Baxenabarrekoa eta Zuberoakoa. Hona zer agertzen duen *jin* hitzean *Orotariko Euskal Hiztegiak*.

“General en los autores suletinos y bajo-navarros; hay tbn. un ej. de un catecismo de Arcangues de mediados del s. XIX (BOEI 432). Desde finales del s. XIX su uso se extiende a la práctica totalidad de los autores septentrionales –no se encuentra, con todo, en un continuador de la tradición puramente labortana como Zerbitzari–; antes lo usa tbn. Goyhetche (210), autor labortano permeable al léxico de otros dialectos”.

Era berean, lehen ahapaldian datorren *nuzia* adizkia, *nuzu* eta *–a* galdetzaila, ez dira, itxurak direnez, ez bata eta ez bestea Lapurdiko tradizioak. Hona *–a* hitzean zer datorren *Orotariko Euskal Hiztegiak*:

Suf. or. usado facultativamente en interrogaciones totales. Al Norte de la frontera en BN, S y parte de L (no en Sara o en la costa; falta en los autores lab. del s. XVIII y es escaso en Lç (12 ejs. sg. Lfn Syst I 440-): en uso en Arcangues, Hasparren...

Artikulu honetan eskaintzen diren hiru eredueta, Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoakoetan, argi ikusten da kontu hau. Lapurdiko eredueta ez dago *–a* galdetzailerik, ekialderako gainerako bietan bai, ordea, Lapurdikoan: *hi oté hays éné léhén semia?* (6 ahapaldia), Baxenabarrekoan *Eskutari nahi nuzia etchian?* (1 ahapaldia), Zuberoakoan *Es othe hissa éné lehen semia?* (5 ahapaldia)

Adibide gehiago ere eman genitzake. Testuko hitzen erabilerak neurri handi batean euskalki bateko edo besteko erabilera finkatzeko balio dezake. Euskalki eredu finkatzeko, ordea, era bateko aditzen erabilera erabakigarriagoa dela deritzagu, eta dudarik gabe morfologia-markak. Seigarren ahapaldiko *ene lehen semia horretan*, esaterako, *ene* ekialdeko euskalki guztietakoa izan liteke. *Eni* forma, *ene* posesibotik eratorria, ordea, baxenabartarra dela deritzagu. Bigarren ahapaldiko *auzoak hunik utzi dauzkit* esaldian ere *hunik* delakoak Baxenabarreko forma dela salatzen digu. Atzizkiari gagozkiola *–(r)ik* ekialdekoa da; aspirazioari gagozkiola ez ote zaio Arxüri Zuberoako *h–* lerratu?

### ***Lezarteren eredu transkripzio zuzena***

Zuberoako aldaera honek baditu Zuberoako beste aldaerekin kidetasun nabarmenak, baina baditu beste aldaeratan agertzen ez diren berritasunak. Chambraren kaielean, esaterako, *ogi mufle* ager-

tzen da, hemen ere berdin ikusten dugu. Aldaera honek berritasun nabarmenak eta iruzkingarriak ditu, inolako dudarik gabe. Beste inongo aldaeratan ikusi ez duguna lehen ahapaldiarekin paralelismo zoragarria osatzen duen *Jaun gaztea gorarik zira zaldian* dugu. Hirugarren-laugarren ahapaldietan andereari *madama* hitz harrigarria zuzentzen dio. Hitz hau ez dugu beste aldaeratan aurkitu.

Berritasun nabarmen bat zenbakien erabilera baladatarra ere badugu. Ezagutzen ditugun eredu guztietan *zazpi urtez* ibili da semea aitaren zerbitzari eta *zortzigarrenean* eman dio aitak bere azpiko zaldia. Aldaera honetan, ordea, *hamazortzi urtez* izan da aitaren zerbitzaria eta *hemeretzigarrenean* eman dio bere azpiko zaldia. Zuberoako euskaran gainerako ereduetan *behera* dena *aphalik* dugu. Berritasun gehiago ere eman litezke, baina hona beste gabe eredu argitaragabea:

#### Anderia

##### 1er couplet

Anderia goraric sira leihouan  
Soure senhara aphaltic Frantsian  
Houra hantic jin artinoco demboran  
Serbuchari har néssassu etchian

##### 2eme couplet

jaoun gastia goraric sira saldian  
Ené senhara behera doua Frantsian  
Houra hantic jin artinoco demboran  
Serbutchari mentsik estit etchian.

##### 3eme couplet

Issan nussu Frantsian eta Espagnan  
Bai eta ere Angletteraco lurrian  
Andé charmantic ikhousi dit hayetan  
Bena Madama souré pareric étsén han.

#### 4eme couplet

##### 5 couplet

Madama soure senhara guisson ounésta da  
Possible bada ethech ossu confidantcha  
Hama sortsi ourthés eman ditassut oguia  
Hémerétsu guerrenian beraren péco saldia.

##### 6eme couplet


Jaoun gaste begui ourdin faltsia  
Es othe hissa éné lehen semia  
Ousté banu hori éguia déla  
Ehuke hébén hanitch demboran bisia

##### 7eme couplet

Houren gagnen eguin essassue subia  
Hartan gagnen erein ogui bihia  
Hartaric eguin ogui chouri mouflia  
Haren jatian erranen deizut eguia.

Lezarteren kaieretik transkribatu dugu testua iturrian agertzen den bezalaxe. Kaier hori noizkoa den ez dakigu, baina euskarazko grafia zaharra gordetzen du. "Kantariak, dirudienez, laugarren ahapaldia ahantzi du eta osatzeko tarte bat jarri du. Harrigarria da, bestalde, zein irizpide argiz dauden bokalak transkribaturik, *Houra*, *Ousté*, *ourthés* eta abar, baina *banu*, *ditassut*...

Eredu hau guztiz garrantzizkoa denez gero, lehen transkripzioa eskaintzea noraezekoa deritzagu.



Onderia

1<sup>er</sup> couplet

Onderia gorarie sira leihouan  
Soure senhara aphaie dago Frantsian  
Ihoua hantie fin artinoco demboran  
Serbutchari har nassassu etchian.

2<sup>eme</sup> couplet

Jaoun gastia gorarie sira saldian  
Ene senhara behera doua Frantsian  
Ihoua hantie fin artinoco demboran  
Serbutchari mentie estit etchian.

3<sup>eme</sup> couplet

Issan nassu Frantsian eta Espagnan  
Pai eta ere Angletteraco lurrucan  
Ande charmantie ilhousi dit hayetan  
Bena Madama soure parerie etben han.

4<sup>eme</sup> couplet

5<sup>eme</sup> couplet

Madama soure senhara quisson ounesta da  
Possible bada ethec ossu confidantoka  
Abama sorti oulthes eman ditassut oguia  
Ibimoretseu guerronnan beraren peço saldian.

6<sup>eme</sup> couplet

Jaoun gaste bequi ourdin faltia  
Es othe hissa ene lehen semia  
Ouste banu heri equia deta  
Ehute heben hamitch demboran hissia

7<sup>eme</sup> couplet

Ibouren gagnen equin essassue subia  
Ibartan gagnen ercin ogui bihia  
Ibartarie equin ogui chouri mouflia  
Ibareen jatian erriamen deizut equia

### Lezarteren eredia gaurko grafian

Atal honetan zenbait ezaugarri bakarrik iruzkin-  
duko ditugu. Zuberoako ereduaren ezaugarri guztiak  
agertzen ditu eredu honek. Zuberoako ereduaren arte-  
an antzekotasun handiena Chandra kaierakoa  
dugu. Lehen ahapaldian eta bigarrenean *esku-  
tari/ezkutari* hitzaren partez *serbütxari* ikusten  
dugu. Gainerakoetan *eskutari beharrik* hitzen ordez  
*serbütxari mentsik* aurkitzen dugu. Lehen ahapal-  
dian, gorago esan dugunez, *aphalik* hitza ikusten  
dugu. Bigarrenean, ordea, *behera*. Ezaugarri hauek  
Chandra kantariaren kaieran ere aurkitzen ditugu.  
Azkenean agertzen den ogi mufle delakoa Cham-  
braren kaieran ere ikusten dugu. Kantu honetako  
ezaugarririk harrigarrienetakoa, ordea, lehen bi  
ahapaldien arteko paralelismoa dugu. *Anderea*  
*gorarik leihoan* dagoen bezala jaun gaztea ere  
*gorarik dago zaldian*. Chandra kaieran *Angla-  
terreko her[i]an* agertzen zen, gurean *Angla-  
tter[r]ako lurrian*. Ezagutzen ditugun gainerako  
eredu guztietan zenbakiak *zazpi-zortzi* dira. Gure  
eredu honetan *hamatzortzi/ hemeretzi* ditugu.

#### Anderia

1

–Anderia, gorarik zira leihuan,  
zure senhar[r]a aphalik Frantzian.  
Hura hantik jin artinoko denboran  
Zerbü[t]xari har nezazü etxian.

2

–Jaun gaztia, gorarik zira zaldian,  
ene senhar[r]a behera dua Frantzian.  
Hura hantik jin artinoko denboran  
zerbütxari mentsik eztit etxian.

3

–Izan nüzü Frantzian eta Españan,  
bai eta ere Angleter[r]ako lürrian.  
Ande[re] xarmantik ikhusi dit haietan,  
bena, madama, zure parerik étzen han.

4

–Madama. zure senhar[r]a gizon unesta da  
posible bada etzekozü konfidantxa.  
Hamazortzi urthez eman ditazüt ogia,  
hémeretzügerrenian beraren peko zaldia.

5

–Jaun gazte begi-urdir faltsia,  
ez othe hiza ene lehen semia?  
Uste banü hori egia dela  
ehüke heben hanitx denboran bizia.

6

–Huren gañen egin ezazie zübia,  
hartan gañen erein ogi-bihia.  
Hartarik egin ogi xuri muflia,  
haren jatian erranen deizüt egia.

Eredu honek transkribatzeko orduan arazo bat  
baino gehiago sortu dizkigu. Hirugarren ereduaren  
*andé* horretan *ande[re]* jartzea erabaki dugu. Seiga-  
arren ahapaldian nola transkribatu behar da *ezazie*  
edo *ezazie* ?

Euskarazko ezaugarriei gagozkiela Zuberoako  
euskararen ezaugarria dugu *gañen* inesibo arka-  
koa. Era berean *haren gañen* esan beharrean *hartan*  
*gañen* esapidea “Arengaraiko primaren khantore-  
an” agertzen den esapide famatua.

Gaurko grafiara transkribatu dugunean hutsik  
omen dagoen laugarren ahapaldia ez dugu kontuan  
izan.

## ONDORIO BEZALA

Baladagai beraren hiru eredu argitaragabe transkribatzea izan da artikulu honetako helburu nagusia. Behin transkripzioak eskaini ondoren zenbait iruzkin ere egin dugu. Gure lan honetan ez dugu

baladen azterketarik eskaini. Eredu argitaragabe gehiago ere baditugu, baina beste lan luzeago baterako utzi ditugu.

## OHARRAK

<sup>1</sup> Mugaz haraindiko bi Jatsu ezagutzen ditugu. Bata Lapurdin dago Uztaritze ondoan, bestea Baxenabarren Donibane Garaziren ondoan. Gure eredia Lapurdikoa da.

<sup>2</sup> Hitz hau ez da askotan dermio filologikoen hiztegiatan aurkitzen. Lázaro Carreterren *Diccionario de términos filológicos* lanean antzekoak diren “obtestación” eta “imposible” hitzak aurkitzen ditugu. Hizkuntza guztietan *impossibilia* eginak edo ihartuak daude. *Gatza loratuko da zuk hori egin orduko!* entzun dut sarritan amaren ezpainetarik. Edo “ez naiz joango” adierazteko forma indartsu batean: *Ni hara joan orduko gatza loratuko da*. Halaxe esaten da “zuk ez duzu hori egingo” edo “*ni hara ez naiz joango*” era bizian eta indartsuan adierazteko. Gatza, jakina denez, ez baita inoiz loratzen. Esapide hau etxean ez ezik 1596ko RS eseretan ere aurkitu dut: RS

145-*Gatza lora ditean artean, beste gauza lekuske*. “En tanto que la sal floreciese otra cosa se vería”. Ander Manterolak Zeanurin (Bizkaia) neskatila ezkongai bati ironiaz esaten omen zitzaion esaera bat jakinarazi dit: *Ikopeak artorik egiten bada, zu etxerako!* Ikopeak ez baita ezer hazten ez bedarrik ez ezer, artorik hain gutxi.

*Zezen xuriak erditzen direnean xahalex*, esaterako, imposibilia bikoitza (edo hirukoitza) da zezen zuririk ez dagoelako eta zezenek ez dutelako umerik egiten. Behiak egiten du umea, jakina denez. Impossibilia hirukoitza ere izan daiteke? “Erditu” pertsonak bakarrik egiten direlako eta ez lau hankako pata-riak.

<sup>3</sup> Hitz hau baino lehen *o* jarri du eta gero ezabatu.

<sup>4</sup> Nola jarri behar dugu *hizanez* edo *hizanetz*? Zehar galdera honek badu beste aukera bat *hizanenz* eta *hizanentz*.

# Toulouse-Lautrecen hankatxoak

(Txori urrutiaren begirada angelu oblikuotik)



Ostiral arratsaldero bezalaxe, iloba txikiaren bila joan zen Itziar Oiz paseo bat emateko asmoz. Iloba txikiarena azpimarratzekoa zen. Izan ere, Itziar Oizek berrogei urte inguru bazeuzkan ere, gazteagoa ematen zuen, agian jantzita zituen marra koloretzuko artilezko jertse eta zintadun botengatik. Harribitxi izeneko loroak jantzi alaiak eramateko gogoia sartzen zion eta baita sukaldaritzan ari zeneko garaitik ezagutu zuen pintxoan munduak ere. Batzuetan egin ohi zuen bezala, galtzerdi desberdinak jantzen zituen apropos, joko surrealista gisara. Arropekin jarraituz, fular urdin bat zeraman lepo inguruan kiribilduta.

Jose txi iloba txikiaren bila joan zenean paseatzera ateratzeko, hantxe zegoen etxe atariko bankuan eserita, kolonia usaina bafadaka zeriola, ur eta hosto freskagarrien koloniaz blai, maleta bat eskutetan. Etxekoak agurtu eta prestatutako opari bat bezalaxe jaso zuen iloba. Praka motzak zeramatzen eta galtzerdi urdin argiak, zapata urdin ilunekin joko eginez. Kopeta ilegorri sarriak bihurrikeria areagotzen zion eta bat egiten zuen, bai ustekabe punttu batez beti irribarrez zeukan begi berde parearekin, bai sudur zut eta gorrixkarekin. Nahiz eta Itziar Oizi ez zitzaion askorik gustatzen, kale nagusitik abiatu ziren, modu honetan Jose txi hain gogo-

ko zituen komikietako heroi sentitzen zelako, hori batetik, eta, bestetik, Itziar Oizek modu horretan Josetxuren hazte prozesua gertuago nabaritzen zuelako. Behintzat, hori iruditzen zitzaion.

Farolei eta zuhaitzei begiratzen zien Josetxuk liluraturik, aurreneko aldiz ikusiko bailituan. Zuhaitzak ez ezik, farolak ere haziago ikusten zituela aitortu zion Itziar Oizi eta arrazoa zeukan, argiztapena aldatu zitelako: argi gardenagoa zerien. Itziar Oizek, berriz, Josetxuren hanketan iltzatzen zuen begirada noizbehinka. Praka motzekin hankak motzagoak zeuzkala iruditzen zitzaion, baina ikuspegi hori ilusio surrealista bat baino ez zen, tolestu eta destolestu daitekeenari buruzko eta zine bikoizketari buruzko perspektiba eta mundu oso bat zabaltzen ziona eta Josetxuren hankak jostailu bihurtzen zituen, baina adierazi bezala ilusio hutsa.

Udazken arratsalde bateko sei t'erdia zirenez eta farolei argi gardenaz zerienez, zazpiak arte (gaztaina saltzaileak zabaltzen zuen arte) itzarongo zuten banku batean eserita. Eseri bezain laster, Josetxuk hegazkin maleta zirudien hartatik azal horiko liburu bat atera zuen, aspaldian gordetako sekretu bat agertu edota aspaldian itxitako kutxatila bat zabaltzen den moduan.

Azkenaldian idatzi zituen idazlanak erakutsi zituzkion. Bi ziren eta gai berberari buruz ziharduten: hazkuntzaz. Lehenengo idazlana ilea hazten ez zitzaion zortzi urteko neska bati buruzkoa zen. Nahigabe baten eraginez suertatu zitzaion gabezia hori, anaia bat-batean hil zitzaiolako. Hori zela-eta, begi bateko malkoak lehortu zitzaizkion, beraz, tristurak iturri erdikoak izaten zituen. Kanpotik hori oztopagarria ez zela zertan izan bazirudien ere, aipatu neskata zeharo traumatizatuta bizi omen zen, gainontzeko pertsonekin erkatuz beti atzean gelditzen zelako sentsazioa zeukan, ez zela ohiko neurrira heltzen. Buruko ilea alkandora anestesia-tua zeukala esaten omen zuen, kartzela eginda eta

akats hori estaltzeko sahas negartietan aterpetzen zen, hosto luze bezain malguen artean.

Bigarren idazlanaren protagonista azkazalak luzatzen ez zitzaizkion hamabost urteko neska zen. Oinetakoekin ez zuen oztoporik, aitzitik, «lan bat gutxiago» ziotson bere buruari, horrela ez baitzitu en moztu behar, baina eskuetako azkazalei begiratu eta pena ematen zion, bere lagunek azkazalak karrakatu eta pintatzen zituztelako eta berak ez. Zergatik gertatzen zitzaion hori? Ezin jakin, gauza zen gorputzeko beste atalek euren garapena izan zutela, baina azkazalek ez zutela trenik hartu eta erdibideko geltokian geratu zirela betirako. Gauza da katutxoei azkazalak moztu dizkiezunean bezalaxe egiten zuela neska honek, eskuak bere baitarantz bildu, uzkur-uzkur, bi mataza egirik.

Gutxi gorabehera hori zioten Josetxuren idazlanek eta bederatzi urteko mutiko batentzat bikainak iruditu zitzaizkion Itziar Oizi bai irudimenaz, bai istorioa garatzeko moduan ere.

Zazpietarako gaztaina saltzailearen etxola aurrean zeuden, orduko-orduko, bi euritako bezalaxe. Saltzaileak ezagutzen zituen jadanik, besteak beste, beti kopuru berbera eskatzen zutelako: hiru euro. Saltzaileak hazpegiz edo ahoskeraz Hego Ameriketako zirudien, azalak lurralde marjinatuetako mapen kolore ilunkara leuna zeukan, begiak bi data galduak bezalakoak eta beti harilkatzen ziharduten eskuak. Poliki hitz egiten zuen, hitzak iragazten egongo bailitza. Gaztainak erretzen ari ziren danbolinari txinpartak zerizkion eta, batez ere, Josetxuren siluetaren inguruan pilatzen ziren. Une horretan Josetxuk nonbaitetik sortutako printze bihurriaren antz erabatekoa hartu zuen. Gaztainen azalei gainazal ezin interesgarriagoak irizten zien Itziar Oizek. Hori batetik, eta, bestetik, Josetxuk gauzak zenbakitzeko joera zeukan eta saltzaileak gaztainak trapu batekin estalita zegoen otarretik paperezko zorrora igarotzerakoan, beti banan-



banan kontatzen zituen. Bi arrazoioek bertararazten zituen hara. Kriseiluaren pean artzain nomada baten jantziak nabarmenagoak zitzaizkion emakumezko gaztaina saltzaileak ohi bezala hogeita bat gaztaina ale zenbakitu zituen.

Josetxu paseatzera atera ondoren, Itziar Oiz udal liburutegirantz abiatu zen. Ibili ahala beti bezala ideiak bururaten zitzaizkion, trumilka bururatu ere. Batzuek abiadan doan tren bateko leihotik ikusten diren paisaia pusken modura zebilela zioten. Beste batzuek, berriz, pelikula bat birbobinatzten den bezala edota eskailera mekaniko bateko mailen antzera. Hirugarren batzuek beste irudi bat zerabilten (izan ere, Itziar Oiz guztiz anitza zen). Hauen ustez, zitzu bizian doan lasterketa automobila zirudien eta orduan bostehun zaldiko potentzia zeukan eta lepotik zintzilik zeraman lauburua jirabira zoroan zebilkion eta abiada hura guztia geldiarazteko gozoki bereziak dastatu behar izaten zituen, Toulouse-Lautrezen *Confetti* zeritzon kartelari zegozkionak, hain zuzen ere.

Liburutegian ziur aski arte liburuak aukeratuko zituen, horiek izango zituen ostiral arratsalde hartako bidaia lagun. Pintore askoren izenak irakurri zituen bere irudimen ibiltarian, baina, batez ere, bat hurbil sentitu zuen: Toulouse-Lautrec. Eta sentitu ez ezik, tintaz litografiaturik grabatu ere egin zitzaion kopetaren barnealdean, argi artifizial baten moduan, alkoholaz eta nostalgiaz bustitako bufanda bohemiaren baten agurraren antzera edota pintzelkada hautsi bat bezala. Gero, kartelak Toulouse-Lautrezen nortasun agiriaren gisara ikusi zituen. Kartelok kopeta paperez tatu zioten. Toulouse-Lautrezen beraren irudia ere gertutik antzeman zuen: hezur hautsienak ziren urrats txiki eta zalantzazko haiek, atalase berri eta erromantikoekin amestu bai, baina porrota nabaritzeraoan, oraindik are gehiago laburtzen zirenak edota oraindik ere atzerantz gehiago egiten zutenak. Akats hori zela-eta, zerizkion marmarrak bizar inguruko izerdiarekin

pilatzen zitzaizkion. Negar ere egiten zuen, erdi disimuluan, zerbait atzamarikatzen balego bezala edota zerbaitetara iristeko asmoz lehiatutako ahots xumea bailitzan.

Baina, batez ere, Toulouse-Lautrezen eskumako eskua bere sorbalda baten gainean bermaturik edukitzean, ikasi zuen Itziar Oizek zer zen laguntza baten beharra eta zer zama. Izan ere, bazirudien keinu harekin hanka txikien gainean erortzen zitzaion gorputz enborrharen pisua partekatu nahi zuela, partekatzea eskatzen ari zela.

Toulouse-Lautreki buruz, XIX. mende amaierako Pariseko kronika pintatu zuela gogoratu zitzaion, hiri horretako burdeletako eta giro marjina-tuetako barne dekorazioak inpresionismo oso pertsonalean eta perspektiba zeharo bitxietan mamiturik utzi zizkigula trazu modernistaz lagundurik. Motiboei eta errepresentazioei ematen zien garrantziaz, pertsonaien erretratuez... eta horrelako arloez pentsatu zuen kiosko baten aldamentetik igarotzen ari zelarik.

Baina zergatik aukeratu zuen Toulouse-Lautrec eta ez beste pintore bat? Agian halako morbositate zeriolako (bizitza bohemiara bezain petrala eramateagatik, gaixoa eta, hein handi batean, alkoholikoa ere izateagatik); agian bere oinazearekin bat egin nahi zuelako; agian pintore frantziarraren koloretan eta sentsazioetan buru-belarri murgildu nahi zuelako edota jasan zituen delirium tremens krisietan sakontzeari interesgarri zeritzolako (horiek bere pinturaren bilakaerarekin eduki zezaketen balizko harremanetan induskatzearen). Honetaz gain, Toulouse-Lautreki buruz beti gordetzen zuen gogoan hurrengo argazkia: aulki batean eserita zegoeneko, hanka txikiak inoiz baino gehiago nabarmentzen zitzaizkiolarik. Sekulako maitazarrea zion aipatu argazkiari, besteak beste, txikitako pasarte bat zetorkiolako oroimenera, pediatrik eserarazten zueneko. Izan ere, Itziar Oizek munduko pediatria-

rik bikainena eduki zuen (horregatik gustatzen zitzaizkion umeak eta horregatik ere Toulouse-Lautrecen itxura). Pentsamenduok otu zitzaizkion bigarren kiosko bat atzean uzten zuela.

Toulouse-Lautrecek bizitzan jasan behar izan zituen nekeetan eta txantxa astunetan pentsatzen jarri zen segidan: dadorik gabeko godaletarekin edota jostorratzez beteriko titarearekin erkatzen zutenean, hegazti zangoluzeei bekaizkeria ziela aurpegiatzen ziotenean, garaikur apurtua bailitzan andetan eramaten zutenean, ahuntza balitz bezala bizarretik tira egiten ziotenean edota kabaretaren erdian aulki baten gainera igoarazi eta hankak zentimetro batez neurtzen zizkiotenean barre algaren artean. Itziar Oizek Toulouse-Lautrec tapiz edo oihal batekin estali nahi luke, babesa opatze aldera, besarkada epela adierazi nahi lioke eta bide batez bere fularra utzi, iragazitako argi izpi bat igorri, lastan lastokara eman. Hirugarren kiosko batera ailegatzear zela, honelako burutazioekin zebilen.

Handik lasterrera, adabakiz bezala jositako bere gorputzari mozorroak nahitaez ondo egokitzen zitzaizkiola ondorioztatu zuen Itziar Oizek, gainera koadroetan pintatu zituen irudiekin eta pertsonaiekin jolasten ibiltzea mozorroekiko joera areagotu zitzaioela, erretratatu bakoitzaren atzean, enkoadraketa bakoitzean keinu konplizeren bat ezkutatzen baitzuen. Adibidez, Louis Pascalekin batera atea zeharkatzea Toulouse-Lautrecek eman zuen zangarterik luzeena izan zen, espazio batetik bestera hain zalu igarotzerakoan; Tapié de Céleyran medikua dagoen zorua, kotoizkoa dirudien zorua badirudi urratsaren omenez (urrats guztien omenez) pintatuta dagoela. Baina mozorrogintza, batez ere, kabaretetan aurkitutako karikaturetan aurkitu zuen: detektibeak loarinean, plastilinazko behatzen artean prostituten ile kiribilak zeuzkaten orekariak, purtzilkerien bitartez katartizatutako irioleak, apeztez zintzilikatutako begirada zorrotzeko epaileak

edota etxeakoandre aspertuak. Bestaldetik, Paul Sescou argazkilariak Toulouse-Lautrec hainbat mozorroekin fotografiatu zuen: dantzari lapurrak, soziologo estrukturalistak edota kapela probatzaile hipnotizatzaileak. Honetaz gain, ez dezagun ahantz Toulouse-Lautrecek berez bufoi itxura zuela eta pentsa daitekeenez bestera, umorerik bazeukala. Itziar Oizek honetan ziharduen laugarren kiosko batera iritsi bezain laster.

Bosgarren eta azken kioskotik igaro ostean, Toulouse-Lautreci hanketan masajeak emateko gogoatu sartu zitzaion eta horretara baino lehen, eskuak urpeletan beratzen zituela imajinatu zuen. Gero, krema zuri batez leunduko zituen. Toulouse-Lautrecen eskumako hanka atxiki eta ogia bailitzan oratzen hasi zen. Gauza bera egin zuen ezkerrekoarekin. Hurrengo pausoa lastantzea izan zen. Femur hautsiak lastandu zizkion, emaro-emaro, ia ukitu gabe, larrua kristala bailitzan. Orbain haragiztatu haietatik ermamiak igaro zituen, hezur-berritan leudekeen bi ilargi puska izango balira bezala.

Liburutegiaren atarian zegoelarik, Toulouse-Lautrecen heriotza etorri zitzaion gogora, nola alkoholaren eldarnioak burua harrapatu zion zeharo, nola hasi zen birla baten modura zambuluka eta lurrera erori baino lehen nola joan zen bazter batetik bestera, karanbola egin duen bola baten gisara. Bazterrekin ez ezik, zoruarekin ere ez zuen zorte larregirik izan, eskailera buruaren ertzean zerraldo geratu baitzen eta eskumarantz jiratu nahi izatera koan, eskaileretatik behera erori, eskailera luze bezain estu batetik (berak hiru euroren truke erosten zituen gaztaina kopurua bezalaxe hogeita bat eskailera maila ziren, hogeita bat eskailera maila morkots). Maldan behera amiltze erabateko hark ondorio larriak utzi zizkion: bizkarrezurreko orno guztiak gelditu zitzaizkion hautsita eta buru aldea ere kaltetu zion. Oinak beti bezain txiki eta tente izan zituen orduan ere, apala izanagatik eta bizitzan

zehar erreberentzia anitz egin arren, inoiz ez baitzen belaunikatu inoren ezta ezeren aitzinean ere. Ohean zetzala eta hiltzear zela, kabareten inguruko eszenak eta giroak marraztu zituen gogoan.

Liburutegiko apal batetik bestera zihoala, txikitatik zeukan ohitura hura bertaratu zitzaion Itziar Oizi: liburuetakoa ilustrazioetan sartzearena. Toulouse-Lautreci buruzko azal gogorreko liburu bat esku artean eduki bezain laster, horixe egin zuen, hain zuzen ere, baina oraingo honetan Toulouse-Lautrecekin batera eman zuen jauzia. Pariseko gau giroan zela, ezer baino lehen, Toulouse-Lautreci trajea lisatzen eta kapela jartzen lagundu, zapatak eta bastoia ziratu eta eskuan muin emandakoan, Rochechouart Boulevardean sartu ziren. Errealitatea zirudien baino gordinagoa zen, han bildutako dantzari, artista eta gainontzekoek Toulouse-Lautrec ikusi bezain laster, «grapaz jositako pertsonaia», «xanpain botila tapoia baino zapalduagoa», «ipotxa azpilean zerbitzatua», «salmahaitik zintzilikatutako bi zotz puskatu txikizkako salmentan» edo «sasi protesia» bezalako grazia burlatiak eta mingotsak egozten baitzizkioten barra-barra. Beste batzuetan kaleko loteria saltzaileak bezalaxe horrelakoak kantatzen zizkioten, batzuetan koru eginda eta guztiz: «badator itxaropenik gabeko basoerdi pare», «bi partxe bezalako hankak dauzkan pirata», «bi zeru-harraskari lurretik arrastaka», «zu bai zarella estafermoa!», «akorde disonantea» edota «zentilitro». Bonbardaketa horren aurrean Toulouse-Lautrec zurrundu eta pipertzen zen, marmarrean hortzak korapilatzen zitzaizkion eta askotan pentsatu ohi zuena errepikatzen zion bere golkoari erdi isilean eta inork ez ulertzeko moduan: bere hankak zirela Eiffel Dorrearen benetako bi erreplikak. Gertakari hark erabat abaildu zuen Itziar Oiz eta bere bizkarreko mina jabaltzearren, hortik zehar aurkitutako lehenengo dibanean erdi etzan zen. Estuasunak igarota, platinozko ahoan zigarroa egokitu eta

erretzen hasi zen, Moulin Rougeko giro lurrundu eta desinhibituarekin bat eginez. Gero, lokalaren ertzeraino, angelu oblikuoraino, lagundu zuen Toulouse-Lautrec, La Goulue zeritzon kabaretariak eta Valentin le Désossék dantzan ziharduten eszena ezin hobeto ikusten baitzen handik. Toulouse-Lautrec apunteak hartzen aritu zen, mugimendu guztien joan-etorriak eta airean zizelkaturiko ñabardurak bereganatzearen. Aurretiazko zirriborro batzuk egin zituen, lan prozesu baten fase desberdinak bailiran, saio desberdinak bailiran. Dantzaldia iraun zuen arte han egon ziren. Tente egon behararren beharraz abaildurik, balaustradaren ondoko mahai baten inguruan eseri ziren, Toulouse-Lautrec eta Itziar Oiz tertuliakideak biltzen ziren esparruan eztabaidek, elkarrizketek eta proposamenek (batzuetan era grinatsuz aurkeztuta) gaueko giroa pintzelkada sukartsuz zeharkatzeaz gain, han bildutakoak ere babesteko gaitasuna baitzuten. Handik ikus zitekeen La Goulueren motots ilegorri ikonikoa Paris gautarra gidatzen. Bide batez, gertutik entzun zituzten Pariseko literatur kritikari ospetsuenen eta egunkari salduenen erredaktore nagusien iritzia. Oscar Wilde ere han ezagutu zuten, esaldi arranditsuak idazten zituen idazlea. Giro hura ustiatuz, Itziar Oizek Toulouse-Lautreci poltsen eta kolonia ontzien bildumak egiten zituela eta azken zaletasun hau “Saski-Naski” mertzeria eta opari dendan lan egin zuen garaitik zetorkiola aitortu zion. Gero, aretoari gain-begirada detailezalea bota zion. Chocolat pailazo beltzak dantzari ekin zionean, Toulouse-Lautrec berriro gerturatu zitzaion, oraingo honetan oinekin konpasa eramanez. Itziar Oiz berarekin joan zen, nahiz eta uste zuen gau bakar baterako pertsonaia entzutetsuen dantza gehiago gehiegi zela. Pianoa jotzen ziharduen batek Itziar Oiz gonbidatu zuen dantza egin zezan, baina Itziar Oizek erantzun zion gaztetan dantza gehiegi egin zuela eta orain besteen txanda zela. Gauzak horretan gelditu ziren

eta Itziar Oiz ikusle soil gisara egon zen, noizbehinka txistuak joz eta erritmoa markaraziz.

Moulin Rougetik atera zirenean, Jane Avriekin egin zuten topo, berak ere handik beste norabait zihoala esan zien, baina zehazki nora ez. Denetarik ikusi zituen Itziar Oizek kale haietatik: eskaleak trapuzko begiekin, sudur luzeko salatariak, azken odol tantaren atarian barrenak ginebraz bustitzen zituzten banpiro despistatuak, masailetan ezpaine-tako barren markak zeramatzaten hiltzaile erromantikoak, tren gidari filosofikoak, igogailuetako sokez euren buruak urkatzeko plantak egiten zituzten antzezleriak... Toulouse-Lautrecek eta Itziar Oizek Moulin de la Galetterantz joatea erabaki zuten. Han ere istorio guztiak dantzarik dantza gertatzen ziren, mamitzen eta deskorapilatzen, akordeoi bigun eta ile kiribil malgu gisara, kale amaigabeetan edonora zihoazen, kale honetatik bai eta beste abenida horretatik ere bai.

Hurrengo egunean txirrindulari lasterketa ikustera eta zirkura abiatzekoak ziren, arratsaldean, berriz, antzerkera. Txirrindulari lasterketarena agendatik ezabatu zuten. Izan ere, Itziar Oizek iktusa (maila apaleko iktusa) eduki zuenetik bizikletari beldurra hartu zion, eroriko zelakoan baitzegoen (dinbili-danbala zebilzkion aldakak, belaunetako hezurak ere hala-hola). Hori zela-eta, Itziar Oizek Toulouse-Lautreci honek marrazturiko *La Chaîne Simpson* kartelean barneratzen utzi zion, txirrindulari amaigabe bihurtu zedin. Zirkuan Toulouse-Lautrecek marraztu eta pintatutako animaliak berpiztu zituzten. Pertsonaia berezia ere agurtu zuten: elefanteak arkakuso bihurtarazten zituen hezitzailea. Antzerki alorrean Itziar Oizi harrigarri egin zitzaion palkotik Toulouse-Lautrecek 1900. urtean pintatutako antzerki eszena bi haien barruan (Mesa-lina mantu gorriaz harat-honat zebilenekoetan) ikustea. Giro arranditsu horretan Toulouse-Lautrecek bere gorputz tamaina askozaz txikiago nabari-

tzen zuela ematen zuen. Paul Viauden almirante trajeaz mozorrotuta ikustea, berriz, erdi barregarri, erdi arraro suertatu zitzaion Itziar Oizi. Eguna bukatzeko eta azken brotze gisara, Jane Avril agertu eta kontrabaxuaren giderra kartelaren marko bilakatzen zen marrazkian sartzeko baimena luzatu zion Itziar Oizek Toulouse-Lautreci: han Toulouse-Lautrecek inoiz baino Toulouse-Lautrecagoa zen, inolako ezbairik gabe.

Udal liburutegitik irtetear zela, Toulouse-Lautrecen fisonomiari, bizitzari eta arteari buruzko zenbait bizipen eta kartel ikusi zituen bere irudimenean gandi, elkarriz jarraitutako fotokopiak bailiran, erreparatzen ariko zen album bateko argazkiak bailiran, adibidez, bere ehiztari begi zoliak, beti xehetasunik antzemanekinaren peskizan zeudenak edo bere bizkarra hainbeste arbuioengatik harri bihurtua, hainbeste izerdirengatik ezko gogor egina. Koadroetan inprimatutako pintzelkada erabakiorrak, paperaren gainean hedatutako kolore hautsez-tatuak eta leunak edota garraztasun puntu bateko atmosfera samur eta bizi haiek azpimarragarriak suertatu zitzaizkion.

Hurrengo hausnarketan ere murgildu zen. Arte historiari buruzko liburuek gauza zehatzik esaten ez bazuten ere, Itziar Oizek argi zeukan: Toulouse-Lautrecek kabaretak eta, bereziki, Moulin Rouge kabareta pintatzeari ekin bazion, Cha-U-Kao emakumezko pailazoaren estola hori amaigabea, Jane Avriken eta beste kabaretari batzuen galtza gorri luzeak eta Yvette Guilberten eskularru beltz luze bezain malguak ikustean eta pintatzean, bere hanka motzak ere hazi eta luzatzen zirela sentitzen zuelako izan zen (katarsi hori lortu nahi izan zuen). Honaino heltzeko bide luzea egin zuen, forma eta mugimendu zalueta eta bihurtasun miatuz, hau da, zirkuko eszenak, Montmartre inguruko abeslariak, dekorazio eta tipografia modernistak eta estilizazioak landuz. Izan ere, arte munduan bizi-

tzan bezalaxe, guztia ikasketa prozesua baita (hori ondo jakin zuen bere pintzelak).

Udal liburutegitik irtetea, Itziar Oizek Toulouse-Lautrec eskutik heltzen ziola irudikatu zuen, berarekin bat egin edota identifikatzen baitzen. Itziar Oizek Toulouse-Lautrecek bezalaxe lehiakide kaskarrak izan zituen bizitzan, hirugarren mailakoak. Izan ere, Toulouse-Lautrecek bezalaxe Itziar Oizek ere sarritan isekak jasan behar izan zituen. Zergatik egiten zioten barre Toulouse-Lautreci? Gizarteak asmatu zuen honako gezurratik: batzuetan jantzen zituen bortzegiek zaldi zikiratu baten ibilera hartzera eramaten zutelako. Zergatik trufatzen ziren Itziar Oizek? Gizarteak korapilatutako eta behin eta berriro elikatutako hurrengo haluzinazioagatik: pelukeriara zihoanean, metxak egiteko ohitura zeukan eta hori zela-eta, perikitoa, papagaia edo tukana zela zioten eta biraoak eta harri koskorak jaurtikitzen zizkieten, oihanaren erdian egongo bailiran. Horregatik ere heldu zion eskutik Itziar Oizek Toulouse Lautreci, gutxitan egin ohi zuen bezalaxe.

Egun hartan bertan gaueko hamabietan Itziar Oiz eta Toulouse-Lautrec auzoko pub batean sartu ziren. Itziar Oizek bere kolporako gogoratu zuen bere familiak zeukan taberna langileak ume handiak zirela, buzoj jantzita zihoazela eta bizitzaren gogorra eramateko jolasak antolatzen zituztela. Pubeko giroa, ordea, zeharo desberdina zen, nahiz eta bietan marjinazioaren azpiegiturak zirauen. Toulouse-Lautrecen hankatxoei esker angelu obliquotik ikasi zuten marjinatuen kodean hitz egiten hasi ziren. Ia inork ez zien ulertzen. Jendeak uste zuen akatsen bat zeukatela ahoskeran, zenbait hortz ments zituztela edota burua nahasita edukitzearen ondorioz hizkera ere mordoilotuta zeukatela, baina ez zen horrela, kode marjinatu hura baitzen leku publiko batean elkarrizketa pribatu bat eduki ahal izateko modu bakarra. Tonu ozarra bezain askea izan zuten nagusi, nagitsua bezain malenkoniatsua,

gaueko ordu haietako erloju ahaztu eta aienatupei zegokien bezalaxe, non erlojuen ordeztu ia-ia ilargiak antzeman baitzitezkeen, ilargi makillatu eta zoroak, gehiegizko kolorete eta errimelarekin, banbalinen eta ispiluen artean ezkutatzera jolasten duten horietarikoak. Halako batean aldamenean zegoen batek hizka-mizka aritzeko gogoia zeukala ematen zuen.

–Zein hizkuntza mota darabilzue? A, zer nolako ahuntz hizki nahaspila! –errieta egin zien, eskuak burura eramanez.

–Hizkuntzari begira, mahai erreserbatu batean gaude, argot klase bat erabiliz, oso moko fin edo zuriak baikara. Aditu duzu? Molestagarria iruditzen zaizu? –erantzun zion hizkera komunaz eta esaldiak hizkiz hizki ahoskatuz Itziar Oizek.

–Ze bitxiak! Jarraitu zuen zelaietan edota lorategietan! –esan zien andreak, ezpainak luzatuz eta nolabaiteko mespretxua adierazi nahian.

–Gainera, guri batzuekin komunikatzea ez zaigu interesatzen. Are gehiago ez dugu nahi. Askotan bizitza honetan hobe da batzuk ez ezagutzea –azpimarratu zuen Itziar Oizek funtsezko egia batzuk jakinako une batzuetan bakar-bakarrik esaten diren moduan.

–Beitu, zeinen argi dauzkaten gauzak batzuk –erantzun zion zuzenki Itziar Oizek andreak hazpегiezt keinu desatsegina kanporatuz.

Mokokaldia amaitutakoan, Toulouse-Lautrecek haragizko begiz eta Itziar Oizek paperezko begiz XIX. mende amaierako Paris gautarra erreparatze-ari ekin zioten.

Toulouse-Lautrecek, batez ere, berak propio ezagututako pertsonen eta pertsonaiezt jardun zuen. Désiré Dihau fagot jotzailea, nahiz eta senide izan (urrutikoa), berarekin harreman arina eta erraza izan zuela aitortu zion Itziar Oizek, erretratatzeko posatu behar zuenean, inoiz ez ziola oztopo txiki-erik ere jarri, ordubete egon behar bazen zutik eta jarrera berean egoten zela fisik esan gabe, beste

batzuek ez zutela horrenbesteko egonarririk eta hauekin berak bere aldetik irudimen gehiago jarri behar izan zuela. Opera munduarekiko ezagutza Désiré Dihauren bitartez ez ezik, Maxime Dethomas eta Aristide Bruant direla medio ere egin zuela gogorarazi zuen eta argitu, pentsa daitekeenaz bestera, Dethomas arraro-nabarmen horietarikoa zela, bekaiztia eta norgehiagoketan guztiz trebea, bere dotorezia eta fintasuna maskara bat (ondo prestatutakoa, portzelanazkoa) baino ez zela, Aristide Bruant, ordea, “Ambassadeurs” irakur zitekeen kartelean ageri zen bezalakoxea zela, kapa eta ezpatako pertsonaia interesgarria. May Milton-ek berrogeita bost urte zituen ezagutu zuenean eta bai itxuraz, bai izaeraz neskaxa bat zen, urteak aurrera joan arren, haurtzaroko ingenuitatea ez zuen galdu eta agian horregatik beti zegoen irribarretsu, bizitzaren gertaera tragikoak ondo eramaten zekielarik. Rue des Moulins aretoan ezagutu zuen prostituta zaharraz, beti ile-apaintzaile modernisten eskutik igaro berria zenaz, oroitu ere egin zen. Izan ere, hain laxoa eta lasaia zen, ezen urdaiazpiko zurbilak bezalako izterrak erakusteko ez baitzeukan inolako

erreparorik, aitzitik, gustuko zuela baieztza zitekeen. Elsa vienarra eta Louise Blouet d’Enguin jostuna pintatzeak lanak ekarri zizkiola aitortu zion Itziar Oizi eta hori azpimarratzeko nahian zapiz igaro zuen bizarraren silueta, izerdi errekaostak xukatze-arren. Elsaren kasuan begitartea kostatu zitzaiola gehien eta jostunaren koadroan, berriz, ilea eta alkandora. Itziar Oizek bere aldetik, lehenengo eta behin Pariseko giro erromantikoan jarri zuen arreta, bizitzeko jarrera hartan. Bigarrenez, paristarrek bestearekiko erakusten duten begirunea (dotorezia mota hori) ere erakargarria zitzaion, adibidez, Moulin Rougen Toulouse-Lautrecentzat beti zuten erre-erbatu-erik eskabel bat. Eta hirugarrenez, Toulouse-Lautrecen koadroetan koloreak nola hondoratzen ziren antzematen orduak igaro zituela aitortu zuen. Labur-zurrean esanda, zein bere aldetik bizitzaren ifrentzuaz aritu zen.

Zenbat ibilera egin zituzten Itziar Oizek eta Toulouse-Lautrecek azken honen hankatxoak lagun, zenbat perspektiba zorrotzu angelu oblikuotik hartutako txori urrutiaren begiradari esker eta zenbat bakardade puska espermentatu!



# Sei

1

GAUR

Bidaiari,  
abiatzeko zorian zaudelarik,  
puxkak biltzen hasi orduko,  
gogoan izan ez duzula  
helmugan aurki zenezakeen deus ere  
hartu behar.


Ez eraman, beraz, txori batek eramanen lukeen  
baino bagaje handiagorik.

Orena heltzen delarik, utzi gibelean  
oroitzapenak eta oroigarriak,  
zalantzak eta ziurtasunak,  
damuak eta doluak;  
eta beldurak ere bai, jakina,  
baina, batik bat, itxaropena  
edo bidean, baxera hauskor bat legez,  
zapuztu litekeen beste zernahi.

Utzi horiek oro gibelean,  
*atzo* eskuraezina zein *bihar* balizkoa,  
sobera urrun baitira bi-biak.

*Gaur* du bihotzeko txoriak zerurik gogokoena,  
*gaur* habia, *gaur* abiaburu eta helmuga.

Eta *gaur* ez da esku-ahurra  
baino askoz handiagoa izaten eskuarki,  
bertan aise sartzen baitira  
maitalearen larruazala,  
beharretan garelarik heltzen digun lagunaren besoa,  
gosea hil dezakeen ogi puska,  
bizi-egarria asetu nahi lukeen godalet betea;  
urrundu zitzaigun adiskideari  
eskaini genion azken diosala,  
heldu berriari  
eginen diogun ongi etorria...



2

## HERIO BELTZA ZURITZEN

Maiz  
itzala dugu  
uda garaian  
zuhaitz askok jasaten duten  
fruitu goxo bakarra...

Orobat,  
hilzoria  
itxaropenik gabe  
luzatzen delarik,  
ba ote da herioa bera  
baino jainko  
errukiorragorik?

3

Gure aberri zaharra,  
gaur arpilatu  
ametsen erresuma...

Ez dago erbestetik  
gu itzularazteko  
adinako herriminik.

Txori unatua dugu denbora,  
eta, hala ere,  
azken helmuga hurbil dagoela igarririk  
arinago astintzen ditu hegoak.

Gibelean  
gomuten ubera zuria  
fite aienatzen ari  
mugagabeko itsasoaren gainean,  
itzulbideak oro  
behin betiko ezabatuz.



4

## AZTARNAK

Munduko edozein bizileku,  
etxerik pobreena  
edo are  
txabolarik ziztrinena,  
tenplu bilaka daiteke  
jainko-jainkosek  
bertan ostatu  
hartuz geroztik...

Eta orobat gertatu zitzaion  
ene gogo-bihotzei  
haien teilatupean,  
halabeharrez,  
egun batez aterpe  
bilatu zenuelarik...

Egun, ordea,  
inork ere ez luke  
iraganaren distira antzemanen  
bihotz zolan sakabanaturiko  
harri deboilatu horien  
guztien artean.



5

### GOIZAREN ATARIAN

Gauaren maskor ertirekian  
erruten ditu ihintzak  
bere perlarik ederrenak...

Maitale ahalke bat bezala,  
zerumuga hasi da zurbiltzen  
goizaldearen hurbiltasunaz  
ohartu orduko.

Tupustean zozo beltza,  
luma bustiak dizdizari,  
jalgi da lorategitik  
eta bizkor abiatu hegan.

Gauaren hondarrak ihesi doaz.

6

Atzo arno ezinago gozoa  
gordetzen zuen godalet  
atsegingarri hura  
hautsez mukururaino  
beterik dago egun,  
debaldeko denbora  
antzuaren joana  
doitasunik gabe neurtuko lukeen  
klepsidra hutsala iduri

Arno gozo hura  
zure azala zen,  
gaurgero zimeldurik agian;  
godalet hura, berriz, nire eskua.



# Lauaxetaren erlijioa, gizartearen aldeko bizieraren oinarria

Esteban Urkiaga 'Lauaxeta' bizkaitar poetaren  
oroimenez, hilarazi zutenetik 75. urtemugan.



## *Lauaxetaren poesia erlijiosoaren kopuruaz*

Esteban Urkiagak, Lauaxetak, poesia erlijioso asko idatzi zituen. Erlijio-gaia askotan agertzen zaigu haren poesietan, hala nola, zuzen-zuzenik, a) poema solte askotan<sup>1</sup>, b) *Bide Barriak*<sup>2</sup> liburuko "Gurutze-aldera", "Miren Neskutza'ren Baselexea", "Goguaren eresija", "Jaungoikotija", "Jaunagan atsedena", "Artzain Ona", "Miren'i otoa", "Siaskakua" eta *Arrats beran* liburuko "Goxaldeko otoa" eta "Ziniste-bakuarena" poesietan; baita,

zeharka izan arren, c) poema ez gutxitan ere: *Bide Barriak*-eko "Maitale kutuna"<sup>3</sup>, "Ludi-ameskorra"<sup>4</sup>, "Ezilkortazuna"<sup>5</sup>, "Mendijetara"<sup>6</sup>; "Itzarririk"<sup>7</sup> ...

Diakronikoki aztertuz gero, nabarmenki ikusten dugu nola metatzen diren Lauaxetaren erlijio-poesiak *aro biren* inguruan: lehen aroan, nerabezaro eta gaztaroko lehenengo urteetako poemak biltzen zaizkigu, eta, bigarreanean, heriotza hurbiletik bizi

izan zituen azken hilabeteetakoak: Kartzelakoak, alegia<sup>8</sup>. Bestetara esateko, ugariagoak ditugu erlijio-poesiak Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuan (1931. urtean argitaratua), lau urte geroago argitaratutako *Arrats beran* liburuan baino (1935. urtean). Batean zein bestean, haatik, Lauaxetaren poesietan gairik nagusia maitasuna da: “Maitatzen ete nozu, neskati! liraña?”; “Gona gorri, burzapi zuri, / zein lirain azanat iduri / alai abiliñan neska-barri!”<sup>9</sup>. Jainkoa edota erlijio-gaia bigarren postuan daude eta bizi-gozamena soilik behin edo agertzen zaigu *Bide-Barrijak*-en –oso adiera estilizatuan, gainera: “Olan eltzen yaku erijotz antzija; / gozartu dagigun larrosen eztiña”<sup>10</sup>-. *Arrats beran* liburuan, ostera, maitasun-olerkiak ausartagoak izateaz gain –neurritsuak, beti-, bizi-‘plazarrak’, hots, maitaleen arteko dantzaldiak, eta batez ere, ardoarekiko parrandak edo: “¡Kantak, / arda- edontzija / eta mattasun baten poza!” sarriagotan azaltzen zaizkigu; “Kanta ariña”, “Mutxurdiña”, “Ardua ta atsua”, “Udabarriko autorkuntza”, “Txo Moskortua”, “Txiribogiñaren alabea”...

Etapari bi horien arteko aldea askoz nabariagoa zaigu kontuan hartzen baditugu, Lauaxetak, gazte denboran –lehen etapan, beraz-, *Jesusen Biotzaren Deia* (1925-1929 urteen bitartean) eta *Jainkoaren Zale* (1928-1930 urteen bitartean) aldizkarietan argitaratutako olerkiak<sup>11</sup>; eta are eta nabariagoa ere, argitaratu gabe geratu ziren olerki batzuk sartuz gero, Lauaxetak Loiolako nobiziatu eta iunioratualdian (1921-1926) eta Oñako filosofialdian (1926-28) idatzitakoak, hain zuzen. Lauaxeta jesuita izan zen urteetan argitaratutako olerki guztiak olerki erlijiosoak izan ziren: “Noche de la pureza” (Loiola, 1926), “Ad Jesum” (1926), “Ad Cor Jesu” (Oña, 1927)<sup>12</sup>.

Bizitzaren beste muturrera joz, Lauaxeta, espetxean izan zen bitarte laburrean<sup>13</sup> (1937ko apirilaren azken egunetatik fusilatu izan zen ekainaren 25era bitartean), berriro bueltatu zen, ia monografi-

koki, arlo erlijiosora: zortzi olerki idatzi zituen bizitzaren azken etapa gogor laburrean eta zortziak erlijiosoak<sup>14</sup>. Mutur biotako bitartean, hots, *Arrats beran*en bildutako poesietan, batez ere, Uskurtzatsa (horrelaxe Aitzolek *Bide Barrijak*-en “Itzaurrean”) edo erlijio-kutsua askoz urriagoa dugu.

### ***Olerki erlijiosoen edukiaz***

*1. Erlijiotik erlijiora joan-etorria.* Lauaxetak idatzitako olerkien erlijio edukiaz jardun baino lehen, komenigarria zaigu nabarmentzea gizon gazte bati buruz ari garela. Lauaxetak, hilarazi zutenean, 31 urte besterik ez zuen. Zaila da oso adin horrekin erlijio-arloan jarrera trinko edota osatua izatea. Lauaxeta erlijio-heldutasunerako bidean ibili zen, eta idatzi zituen poesia erlijiosoek prozesuan dagoen gazte baten ezaugarriak dituzte: zehaztugabetasuna, beste pentsalari batzuen dependentsia, bizipen aldakorrak...

Abade izateko ibilita ere, Lauaxetak ez zuen, inoiz ere, teologia ikasi, ezta filosofiako ohiko hiru urteak bukatu ere (bi besterik ez zuen egin). Pentsamendu-heziketa literaturako idazleengandik bereganatu zuen, gehien-gehienik. Jesuitekin izan zen bitartean, Lauaxetak pentsamendu aldetiko heziketa literato moderatu samarrengandik bereganatu zuen. Aita Estefaniak proposaturiko Trueba, Iturribarria, Etxegaray, Mistral, Verdaguer, Maragall, Goethe, Longfellow, Musset, Sully-Prudhomme... edota Aita Errandoneak gomendaturiko Birgili-ren *Eneida*, Horazio, Ovidio, Tibul, Propertzio izan zituen inspirazio-iturri.

Jesuitak utziz geroztik, haatik, askoz irekiagoa –erlijio-ikuspuntutik heterodoxoagoa, alegia– bihurtu zitzaion Lauaxetari literatoen eragina<sup>15</sup>: Valéry, Verlaine, Baudelaire, Rimbaud, Cocteau, Carducci, G. Mazzoni, Tennyson, F. Jammes, J. R. Jiménez, T. Maeterlinck, T. de Bonville, García Lorca, Alberti... olerkariak izan zituen gidari edo eragile.

Halaz ere, ortodoxiaren eta heterodoxiaren –gogoaren eta gorputzaren<sup>16</sup>– tirabira horretan, Jon Kortazarren intuizio finak azaltzen digunez, Lauaxetak ez zuen mutur bi horien arteko sintesia eskuratzeko denborarik izan<sup>17</sup>. Heriotza-zigorrean bukatuko zen alditxoan, espetxeraturik iraun zuen bi hilabete eskasean, alegia, Lauaxeta berriz olerki erlijiosoen idazketan bildu zen, soil-soilik.

Kartzelako olerkietan a) bizitzaren alde positiboak gozatzeko gogoia presente egon arren: “Sakon bitan nabil; ez-bai goxo”; “Gaztea nozu bizitz onetan / ta ez yatan falta gauzarik, / Jauna gogorra aldi honetan / iges eitea lurretik”..., eta b) sinestun badirau ere, tentsio tragikoa askoz nabariagoa zaio Lauaxetari, ordu-ra arte idatzitako olerki erlijiosoetan baino: “Zeurekin naukazu, neugaz ez zaukat. / Eguzkitan edur, otzetan sugar. / Jolas bikoitz onek galduta nakar. / Baña bien tartean / sugar zakit, Jauna, biotz barnean!”<sup>18</sup>.

2. *Heriotzarekiko obsesioa*. Erlijiotik erlijiora joan-etorri horretan (erlijio-gaia alboratu gabe baina), Lauaxetak bazuen inoiz laga ez zuen eta erlijioarekin lotuta izaten den kezka-gai bat, heriotzarekiko larria, hain zuzen: “!Oraindik eztot il-gura, bizitzau yatan laguna”<sup>19</sup>, eta horren ondorioz, ezil-kortasunaren grina.

Heriotzaren inguruan, hain zuzen, txirikordatu zitzaizkion Lauaxetari kontraesankorki esperimintatu zituen arestian aipaturiko bizitzarekiko jarrera biak: batetik, heriotza eramangarria izan dakiguke, erlijio-motiboengatik: “Argi orren (Jainkoaren)-barne, eder, soilik, erijotza” (BB, 68., 120. or.<sup>20</sup>), guztiz arbuigarria ere bai, bizitzaren edertasun eta gustagarritasunaren kontra jotzeagatik: “Bizitza eder jakonari, eriotza ez jako atsegin”.<sup>21</sup>

3. *Erlijioa eta politika*. Lauaxeta literatura-gizakia izatearekin batera, politika-gizakia ere izan zen. Zaila da jakitea, eginkizun bion artean, Lauaxetak

zeini eman zion lehentasuna. Lauaxetak horrenbeste miretsi zuen Sabino Aranaren ustez, Jainkoaren (erlijioaren<sup>22</sup>) eta politikaren arteko tirabiretan, Jainkoak du lehentasuna<sup>23</sup>; baina, Lauaxetaren ustez, bereizketak edo tirabira horrek ez du oinarri nahikorik, “emen beti ixan diralako bat. Uzkurtzakin alkaturik ibilli dalako aberrija”<sup>24</sup>.

Lauaxetaren iritziz, abertzaletasuna eta erlijioa dira moneta berbereko alde biak: “Euzkadi’n aberri-aldez dabilena, ziñismen-aldez dabil”; eta uste hori heriotzaren azken uneraino luzatu zitzaion: “Jaunaren maitez, aberri maitez”<sup>25</sup>. Erlijioa eta abertzaletasuna bateratze hori ez zen uste hutsa, bizitza-programa ere izan zitzaion Lauaxetari: “fundar una patria que reconozca los derechos eternos de Dios... Euzkadi Jaungoikuaren itzalpian zainduteko asmoz”<sup>26</sup>.

4. *Konpromisoa*. Lauaxeta guztiz konbentziturik zegoen “Euzkadi maitatuz Jaun-Goikua obeto maitatuko dogula”, eta hori dela eta, sinesmen edo konbentzimendu hori pertsona- eta gizarte-bizitzan mamitzen ahalegindu zen; ez edonola, gainera; zabaltasun eta zorroztasun osoz baizik. Lauaxetak gizarte-konpromisoa, batez ere, kultura –lumaren apostolutza delakoan–, eta politika arloan gauzatu zuen. Nola gero!

4.1. *Literaturagilea*. Ez naiz Lauaxetaren euskal literaturarekiko konpromisoaz luze arituko oraingo honetan, irakurlerik gehienek ezagutzen baitute. Aipatu besterik ez dut egingo. Lauaxetak *Bide Barr-jiak* eta *Arrats beran* poesia liburuetan argitaratu zituen poemez gain, beste hirurogeita hamarretik gora egin zituen (batzuen batzuk, beste poeta batzuen itzulpenak). Horrez gain, abertzaletasuna zabaldu eta sendotzeko antzerki labur batzuk (*Gotzone*, *Aserre Aldija* eta *Epaiya*), eta ipuin batzuk ere idatzi zituen: erlijio-aldizkarietan argitaraturiko *Iru adiskideak* eta *Ipuina dirudin egia* gehi *Illuntzeko ixarra* eta, argita-

ratzerakoan euskaratik itzulitako *El fusil del abuelo* eta *La Campa de Gustiz Ederra*.

4.2. *Kazetaria*. Lauaxeta lumaz baliatu zen gizarte eta politika arloan. Lehenik, Kirikiñoren eta, gero, Orixeren gidaritzapean argitaratutako *Euzkadi* egunkariko *Euzkel Atalaz* arduratu zen Lauaxeta 1931ko haziletik (azarotik) aurrera. Horrez gain, *Txistulari*, *Jaungoiko-zale*, *Los Luis*, *Jagi-jagi*, *Euzkerea*, *Bizkaitarra*, *Yakintza* eta beste zenbait aldizkaritan ere argitaratu zituen hainbat lan. Harrigarria da zeinen zabala zen Lauaxetak egunkariko artikulu horietan landutako esparrua!, zer-nolako sakontasunez gainera. Politikaz, estatu espainiarrekoaz zein nazioartekoaz, gizarte arazoaz, literaturaz, margolaritzaz, etimologiaz, Espainiako historiaz, Euskal Herriko historiaz, erlijioaz, arteaz... “Lauaxetaren idazlanetan agertzen diren pertsona-izen guztien zerrenda osatuz gero, idazle, eliz-gizon-saindu-teologo, politikari, filosofo, historialari, margolari, musikagile, antzerkigile, etab. azalduko lirateke. Izen-txorta hau bide, laster askotan kontura daiteke bat errealitatea aditzeko Lauaxetaren ikusmirak zuen zabaltasunaz”<sup>27</sup>. Horrez gain, 1930ean, Sabino Aranaren ildotik, euskal musika, hizkuntza, pintura eta antzerkia bultzatzeko *Pizkundia* lan taldea sortu zen eta *Euzkerea* aldizkaria atera zuten. Ekintza biotan, Lauaxetak protagonismo handia bereganatu zuen.

4.3. *Politikaria*. Lumaz gain, Lauaxetak gizarte-eta politika-ekintza askotan hartu zuen parte, buruz eta gogoz, abertzaletasunak ez ezik, erlijioak ere erabat eraginda<sup>28</sup>. Lauaxeta EAJko militante zintzo eta sutsua izan zen. 1931. urtearen bukaeran, EAJren lan talde batean parte hartzen zuela, Madrilera joan zen Espainiako Hezkuntza ministroarekin elkarrizketatzeko, Euskal Herriko eskoletan, elebitasuna (hots, gaztelaniarekin batera, euskara ere)

onartua izan zedin. 36ko gudaren lehen egunetan, Lauaxeta gudari antolakuntzan aritu zen; handik gutxira Intendentziako komandante izendatu zuten, eta postu horretatik gizaki asko salbatu zituen, ez errepublikako edo nazionalisten aldekoak bakarrik, kontrakoak ere bai<sup>29</sup>. Guda denboran, Lauaxetak Euskal Gudarostearen komunikabidea izan zen *Gudari* aldizkaria sortu zuen.

4.4. *Hizlaria*. “Egunkalari ez-ezik, izlari trebe be ba da Lauaxeta: erriz-erri dabil Jel-azia ereiten, aspertu gabe”. Azpimarratzekoak dira ‘Emakume Abertzale Batza’ sortu eta sendotzeko Lauaxetak egin zituen ahaleginak: artikuluak, mitinak..., baita euskal sindikalismoaren aldekoak ere<sup>30</sup>. Horrez gain, bai hauteskundeetan, bai Euskal Estatutua ontzat emateko kanpainan, Lauaxeta protagonista izan zen mitin eta konferentzia askotan<sup>31</sup>.

4.5. *Euskaltzalea*. Lauaxeta gogotsu aritu zen euskara zabaldu eta indartzeko ahaleginetan ere. Eskola bakarraren –eta hau laikoa– alde makurtuko zen 1931ko Espainiako Konstituzioa eztabaidatzen zen egunetan. Lauaxeta jo eta ke ibili zen Bizkaiko Diputazioak bultzatutako auzo-irakastolen aldeko kanpainan. Motibo birengatik: batetik, euskarari (elebitasunari) zegokiona: “Euzkeraz baño ez ekijen umiai, bide-errazez orrela irakasten ixen yake. Geure elia delako, ikaskixunak azalduko-bide”, eta bestetik, erlijioari zegokiona ere: “Eskoletatik ziñismena kentzeko asmoetan dabiltz gobernuko orreik, gurutza kendu dabe, uzkurtza edo errelegiñorik erakustia debekatu dabe, ta itxiten dautsoe geure eskolak gobernuari emoten”<sup>32</sup>. Nahikoa ez balitz bezala, Lauaxeta *Euzko-Ikaskale-Batza* sortzen ere ahalegindu zen, euskal unibertsitatearen aldeko lana egiteko.

4.6. *Militante*. Lauaxeta, erlijioaren luzapentzat hartu zuen euskal gizartearen aldeko erronkan, ez

zen, inoiz ere, bide erdian geratzen. Gizartearen aldeko ekintzetan, oso sortzailea izan zen eta konpromisoak azken muturreraino –heriotzaraino bertaraino– eraman zituen<sup>33</sup>.

Kultura arlo guztietara iritsi nahi izaten zuen. 1932an ahozko literaturaren materialak biltzeaz arduratu zen: “Geure euzko-errijetan gauza jakin-garriak dira. Abestijak, esaerak, ipuiñak, edestijak, basatxonuak, mendi-ixenak, baserri-ixenak e.a. Gatza ete yatzube erritarren abestitxu bat *Euzkadi*’ra bialdutia?”<sup>34</sup>. Lauaxeta partaide izan zen AVASCen (*Asociación Vasca de Acción Social Cristiana*) eta 1933ko abenduan, euskarazko irrati-saioekin hasi zen eta *Euzkel Idazte Batzarraren* zuzendaritzan hartu zuen parte.

Liburu eta argitaletxe munduan ere aritu zen. Urtero euskal libururik onena saritzeko helburuz, Detxepare saria sortu zuen 1935ean. Urte berean Euskal Liburuaren lehen erakusketa antolatzeke lanetan hartu zuen parte, eta 1936an “Concurso de obras teatrales de Juventud Vasca” antolatu, baita ALEA taldearekin harremanetan jarri ere. 1936ko guda hasi orduko, Lauaxetak euskal liburu bilduma bat antolatu nahi izan zuen, harpidetzaren bidez zabaltzeko.

4.7. *Kontserbadorea? Aurrerakoia?* Kontserbadorea edo aurrerakoia izatea ez da iritzi zehatza izaten, erlatiboa baizik, are erlatiboagoa pertsona edo talde baten pentsaera eta jarrerak bera bizi izan zenetik hirurogeita hamabost urtetik gora igaro eta gero aztertzen baditugu. Horrez gain, aurrerakoiak izan gaitezke arlo batean eta beste batean kontserbadoreak edota atzerakoiak ere bai. Lauaxeta, arlo askotan, aurrerakoia izan zen, mundu zabaleko kulturara irekia, alegia: “Nacionalismo e incultura son antitéticos” idatzi zuen<sup>35</sup>, eta euskal kultura mundu zabalera eramateko ahaleginengatik, eztabaida

gogorrak izan zituen Jose Ariztimuño *Aitzolekin* eta Nikolas Ormaetxea *Orixerekin*.

Lauaxeta jesuiten eskolakoa izan zen, eta euskal kultura bizkortzeko ahaleginetan, idazle klasikoak eta modan zeuden Europako sinbolistak gurago izan zituen, idazle kontserbadoreak –herrikoiak, kostunbristak eta abar– baino.

Euskararen aldeko ekintzetan, langile sutsua izateaz gain, Lauaxeta elebitasunaren aldekoa izan zen. Azpimarragarria da Lauaxetak emakumearen hezkuntzaren alde eman zituen arestian aipaturiko lan eta esfortzuak. Hala eta guztiz, gizonen parean, Lauaxetak uste zuen gizonoi ausardia eta zintzotasuna zegozkigula eta emakumeei “gozotasuna eta birtutea eta garbitasuna”<sup>36</sup>, batez ere etxean praktikatatu behar zituztenak, gizonezkoaren laguntzaile izanik; politika-arloan, emakumeek propaganda lanetan jardun behar zuten, batik bat. Gaurko ikuspuntutik kontserbadore samarra, beraz... baina urteak ez dira, inorentzat ere, alferrik igarotzen.

4.8. *Gizarte arazoetan*. Gizarte arazoetan, langileekiko hurbiltasun eta sentiberatasun nabarmena erakutsi zuen Lauaxetak, “Langille eraillu bati” olerkia eta idatzi zituen hainbat artikulu lekukoak. Gizarte arazoetan, haatik, Lauaxeta ez zetorren bat sozialistek eta komunistek proposaturiko ideologiarekin, ezta beraiek burutu ohi zituzten ekintzekin ere (grebak, matxinadak...). Lauaxeta “Elizak eskaintzen zuen doktrina sozialaren aldeko agertu zen”<sup>37</sup>; ez omen zuen gizarte-klaseetan bermaturiko eredia gogoko, are eta gutxiago, klaseen arteko liskarrak ere.

### *Lauaxeta eta Lizardi*

Ekintza askotan Lizardi eta Lauaxeta oso antzekoak dira. Kalko bereko kopiak. Biak literatura eta euskararen zaleak, biak euskal kulturaren berpizkunderen aldekoak, biak liderrak, biak militante konprome-

tituak zeregin bertsuetan (euskal kazetaritzan, EAJ-ren politika ekintzetan, mitin eta hitzaldietan...), biak lehentasun berdintsuetan (euskal eskolan, euskal prentsan, euskal antzerkigintzan...) arituak, biak kristau zintzoak. Bioi egokitu diezaikegu, peto-petoan, Lauaxetak mendigoizale taldeko ez esandakoa: “en lo religioso son católicos, apostólicos y romanos, y en lo político, íntegramente nacionalistas hasta sus más extremas consecuencias”<sup>38</sup>.

Hala eta guztiz, hurbilak izanik ere, ezberdinak ere izan ziren, bai literatur planteamenduan, bai guri oraingoan espresuki interesatzen zaigun erlijio-bizipenetan ere. Lizardi, literatur arloan, “herri honek euskaldun zer den ustearekin lotuago agertzen da. Lauaxetak ostera, beste amets batzuk ditu. Hemengoak ez diren amets-moduak... (Lauaxetaren) metaforizazio mundua ez da hemengoa”<sup>39</sup>.

Lizardiren eta Lauaxetaren arteko, batetik, berdintasuna eta, bestetik, ezberdintasuna argi geratzen zaizkigu erlijio-jarrerarekin zerikusi nabaria izan ohi duen ezilkortasunarekin idazle biok daukaten kezka erkatzen badugu.

### ***Ezilkortasuna***

Heriotza eta heriotzaren ifrentzua den ezilkortasuna presente daude idazle bion olerkietan. Kezka-gai bera, kezka horren bizipena, haatik, ezberdina.

Lizardi, heriotzaren inguruan, ‘ikaskinaren fede’-tik hurbil dagoela ematen du, eta alde afektibo edo itxaropentsuei lotzen die bere gogoak. “Xabiartxo`ren eriotza” olerkian, esaterako, semetxoa hil egiten zaio, aingeruen korua handiagotzeko Gabon-jaietan: “*Yai ontako, gehiago / nik bear!*”<sup>40</sup>. “Zeru-azpia” olerkian ere, haurra hil egiten da, zeruaren edertasuna gozatzeko duen grinagatik<sup>41</sup>. “Biotzean min dut” hiletarresian, olerkariaren bihotz mindutik: “*Biotzean min dut, min etsia, / negar ixilla darion miña*” ez da kezkarik azaltzen, itxaropena baizik: “‘Agur! (oiuka dio)

*gorputz ximur maite! Agur, amonaxoa! Egun Aundirarte!’*”, eta “Otartxo utsa”n, olerkariak udaberriko irudi alaiak inguratzen du heriotzaren agerpena: zumezko otartxoa, kuku kantaria, mitxeletak, loreak eta loreñoak, izarrak...”<sup>42</sup>.

Lauaxetak, aitzitik, motibo filosofikoetan bilatzen du berpiztuaren esperantza: “Gauzak ileza barik ziyorik eztauke... Jainko banintz ezneuke erijotz bildurra... ¡Oi, ziñismen arroña bedi gogaikija... Zalantzan zaran, arren, ezilkorra maite; –zeozer geure baitan badogu betikor–, / Gerora adi beti, urduri, oldozkor, / alderik onenera eratzatu zaite”.

Ikuspuntu arrazionalista hau ez da Lauaxetaren bizipen bakarra, noizbait bihotzari edo alde afektiboari ere lotzen baitio bere sinesmena<sup>43</sup>. Baina sakonago aztertzeke gaia dela aitortu behar dudan arren, nabarmen samarra dela uste dut. Egia esan, begitantzen zait Lauaxetaren oinarri erlijiosoa arrazoimendurako makurtuago dagoela, Lizardiren bizipen erlijiosoa baino, baita, ildo beretik, existentzialisten pesimismotik hurbilago Lauaxetaren kasuan, Lizardirenean baino ere.

Argiago geratzen zaigu hipotesi hau, Lizardik berak Lauaxetaren *Bide Barriak* liburuko olerkiez esandakoari arreta ematen badiogu. Lizardiri ez omen zitzaizkion guztiz ase *Bide Barriak*-ko “Gexorik nago” eta “Gaste Gexua” olerkiak “enfermizas de nombre y de concepción... Al emborronar el margen de la pieza “Neguko gaba”, una de las más hermosas, mi primera frase fué esta: ‘Optimismo de un triste habitual’; y es que en cierto momento me dió la impresión de que el poeta, para sentirse alegre ante el fuego de su hogar, había necesitado gritar fuertemente dentro de sí: ¡Largo, fantasmas!’”<sup>44</sup>.

### ***... eta heriotzako orduan.***

Lauaxetaren azken egunak sakonetik sinestuna den pertsona batenak izan ziren. Heriotzarako pres-

takuntza luze eta mamitsua burutu zuen. Orduak eta orduak eman omen zituen, belaunikaturik, presondegiko hormaren kontra, Biblia, batez ere Testamentu Berria –San Joanen Ebanjelioa, batik bat– irakurtzen eta, testu horien laguntzaz, otoitz egiten: “Orain argi ikusten du Jainkoa Maitasuna dela” errepikatzen zuen. “Jainkoa bizia dela” zehaztu zuen Lauaxetaren aitortze eta azkeneraino laguntzaila izan zen Aita Alfonso Maria Moreno jesuitak.

Fusilamendu-egunean, Lauaxeta akolito izan zen Mezan eta, handik gutxira, gurutze santua eskuetan zuelarik, otoitza egiten zuen bitartean, fusilatu egin zuten. Ebanjelioan Jesusekin gertatu-

rikoaren antzeratsu, hil zuten soldaduetariko batek “Gu baino hobek direla” esan omen zuen<sup>45</sup>.

Lauaxetak aspaldian errotu zuen ezilkortasunaren esperantza loratu egin zitzaion heriotzako orduan<sup>46</sup>, bai Jainkoaren bihotzean, bai euskaldunen bihotzetan ere: “Jaungoikoa’ren eskerra daukenak betiko bixitzea eurekin eukiko ei-dabe. Aberrijaganako maitasuna daukatenak, be, eztira sekulan ilgo. Euren gorputzak, be, aberriko lur-biurtuko dira”<sup>47</sup>. Lehenengoa Jainkoaren gogo-askatzaileari dagokio –hori sinesmena dugu–; bigarrena, euskaltzaleoi, eta hori gure egitekoa dugu, behin betiko .

## OHARRAK

<sup>1</sup>Ikus LAUAXETA, *Olerkiak*, Erein. Edizioa Jon Kortazar eta Miren Billelabeitia, 1985, Zarautz, 205. or. eta j.: “Biotzaren negarra”, “Asketsi”, “Otoi-mundua”...

<sup>2</sup>*Bide Berrijei* buruz honela idatzi zuen Aitzolek, liburuiko ‘Itzaurrea’n’, XII-XIII: “Adi-poesi eta maite-olerkiak ez-ezik beste gun ederra dituen olerkitxoak aurki lezazkike irakurleak. Uskurtz-atsak (erlijio-atsak) ikututako biozduak badira. Oñarritzat zinismen sendoa dutenak”.

<sup>3</sup>“Maitasun onek Goiko Jaunagan ditxaro, / berak axian bidez lilitxu gustijak / udabari aldiran dalkartuz enaro... noiz’ak itxi Jainkuan izpizko eskuban... Zerutarrak baitira geure maitasunak”.

<sup>4</sup>“Zeu, Jauna nahiko, alai neu erabilteko!”.

<sup>5</sup>“Ezkara urtzikijak / aren maitasun-izpi edo mosu baño. / Ezilkortasun nairik Jaunguak eztauko”.

<sup>6</sup>“Gitxik dazaben gentzan nabil ameslari, / olan damotsat aintza Urtzi’n emoyari”.

<sup>7</sup>“Lo-aldi orretan egin dodazanak / lepalduko daustaz gogoen Jaun danak?”.

<sup>8</sup>Ikus LAUAXETA, *Olerkiak*, o. c., 315-330. or.

<sup>9</sup>*Bide-Barrijak*: “Erantzuna”; *Arrats beran*: “Mayatzeko gurutza”.

<sup>10</sup>*Bide-Barrijak*, “Liparra”.

<sup>11</sup>*Jesusen Biotzaren Deian*: “Begoñako Amari” (1925), “Orrilla” (1927), “Arimen eguneko yuale-otsak” (1927), “Sor-

tzez Garbiaren gaba” (1928), „Yosuren ametsa” (1929). *Jaungoiko Zalen* “Eleizako aingeruak” (1928), “Eresi bakuna” (1929), “Gurutze jakintza” (1930), “Gorantza” (1930).

<sup>12</sup>ALTUNA, P., “Jose Maria Estefania Zabala (1889-1942)”, *Euskera* 35, 1990, Euskaltzaindia, 75-99. or. Artikulu horretan badago beste olerki erlijioso bat (Oña, enero 1927), F. Urquiaga batek idatzita. Errakuntza bat ala Esteban Urkiaga ez den beste jesuita batek idatzia?

<sup>13</sup>“Le había denunciado un sacerdote corazonista, Angel Caballero” dio Koldo San Sebastian-ek in “Esteban de Urkiaga ‘Lauaxeta’, *Euzkadi* 153[1984]20. Antzekoa suertatu zitzaion Orixeri: “Fui denunciado... por Fray Manuel Artola, lego franciscano, que andaba postulando huevos” in *De mi vida externa*.

<sup>14</sup>“Eguna berantz doa”, “Biotz Donea”, “Agur Euskadi”: “Agur, Euskadi, Jaunak naroa / Aberri eder argira... Gurutz Deunari mosu egiñaz / alde egin eutson mundutik, Kristoren gentza abo ganean / loratu yakon gogotik”, “Azken Oyua”, “Atetan nago”, “Garbaia”, “Plegaria postrera”, “Yo llevo”.

<sup>15</sup>Lauaxetak zergatik utzi zuen Lagundia ez dago garbi. Barne giro estuegiarengatik? Sarrien aipatzen den arrazioa hauxe izaten da: “abadetzako zereginei erantzuteak eguneko ordu guztiak eskatuko zizkiola-eta literatur bokazioa eta abadetza ezin izango zituela uztertu”.



<sup>16</sup> PENADES, J., *Lauaxeta, historian hezuramituriko sinesmena*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1996, 178-187. or.

<sup>17</sup> KORTAZAR, J., *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*, Colección Magisterio, Derio / Desclée de Brouwer, Bilbao, 1986: “Lauaxeta en este (en su último) libro (*Arrats beran*) no ha sido capaz de sintetizar algo que parece intuir: hay dos posibilidades en su obra, o el Salvador o el goce del momento. Él, inconscientemente, juega entre las dos, sin decidirse por ninguna, en un vaivén que muestra al autor como incoherente”.

<sup>18</sup> “Biotz donea” eta “Agur Euskadi” olerkiak.

<sup>19</sup> *Bide-Barriak*, “Gaste gexua”. Azpimarragarria da ildo honetan, Lauaxetak zenbat olerki idatzi zituen heriotzaren inguruan. *BBen*: “Arotzak”, “Gaste gexua”, “Ituna” (maitasunaren ‘heriotza’: “Bijotz orretan aspaldiz dauko / bere obi oso illuna”), “Eskontza-eguna”, “Lied”, “Gabeiko itzalez landu / berunezko illobija”, “Lili-negarra”, “Señai abestu”, “Betikorra”, “Bere illobijan”, “Artzai ona”, “Ezilkortasuna”...; *ABn*: “Ezkontza-goxa”, “Kiñuba”, “Ondartza”, “Langile eraillu bati”, “Artzain baten erijotzena”, “Amayur gaztelu beltza”...

<sup>20</sup> *Jainko-zale*, 383. zkia, 1930: “Iltia baña -Josu maitia, / Kurtze ondoko- gogo-jakintza!”.

<sup>21</sup> LAUAXETA, “Azalpenak” (1932)

<sup>22</sup> Jainkoa eta erlijioa gauza ezberdinak direla jakinda ere, ez naiz oraingoan sartzen Jainkoa eta erlijioa bereizteko eztabaidetan.

<sup>23</sup> *Euzko Ikasbidea* (1906): “Alderdi orrek (EAJk) Euzkadi’rentzat katoliko-batasuna nai du, ondoren guziekin; gauza guzien gañetik Jaun-Goikoa nai du; Euzkadi Jaun-Goikoa’rentzat, alegia, 1839’garren urteko erorikoa baño lenago beze-la. Ta ikastazute au: Euzkadi azke, edo libre, baña Kristo’reñ etsai baño, naiago luke Kristo’reñ mendeko, naiz 1931’garrean bezin lotua egon”.

<sup>24</sup> LAUAXETA, “Azalpenak”, *¿Zer egingo degu?*, *Euzkadi* 1931.10.14/5; eta “Azalpenak”, *Euzkadi*, 1931.07.05/5: “Euzkoen gauzarik berezizena, motarik onena uzkurta da. Erki onein ezaupidia auxe da, uzkurtzaren oinarrija irozota dagualako Euzkadi. Geure motarik kutunena auxe da bakarrik”.

<sup>25</sup> LAUAXETA, “Agur Euskadi”. PENADES, J., o. c., 60. or.: “Bilboko udalak Jesusen Bihotzaren irudia eraisteko hartu zuen erabakia zela-eta EAJren jokabidea zein zen azaltzerakoa... Sabino Aranaren olerkiak eskuan zituela, ‘únicamente quedan flotando en el vacío interior dos estrellas: Dios y la patria’ esan zuen”.

<sup>26</sup> LAUAXETA, “Azalpenak”, *Euzkadi*, 1932.05,12/4: “Langilleak”: “Euzkoen artean kristautasun au abertzaletasunaren alboan dabil”; “Zer egingo degu?”, *Euzkadi*, 31.10.14/15;

“Igangeko Batzarra”, *Euzkadi*, 33.02.21/8; “Agur Euskadi”, *Olerkiak*, Erein, 1985, 318. or.; “Consejos vendo...”, *Jagi-Jagi*, 22(1933)12; “Azalpenak”, *Euzkadi*, 3302.28/8.

<sup>27</sup> PENADES, J., o. c., 39-41. or.

<sup>28</sup> *Euzkadi* 33.02.19/4 “Charlas sabinianas. ‘Lauaxeta en Juventud Vasca de Bilbao’: “El nacionalismo integralmente vasco tiene que llegar necesariamente a lo más profundo del espíritu vasco que está influenciado por la rectitud moral y la libertad”. *Euzkadi* 33.07.11/3: “El nacionalismo en Sestao. Las bodas de plata del Batzoki. D. Esteban de Urkiaga”: “Hizo una interesante exposición del sentimiento religioso de nuestro pueblo y de sus anhelos de libertad y de justicia social”.

<sup>29</sup> Alderdi frankistako gizakiak babesteko lanarengatik hilarazi zuten neurri batean Lauaxeta. KORTAZAR, J., *Lauaxeta*, o. c., 24. or.. “No poseemos actas del juicio, pero al parecer, Lauaxeta basó su defensa en sus acciones de salvación de vidas de personas de la derecha. El fiscal argumentó, por el contrario, que ello demostraba su importancia dentro del Partido. Y llegó la condena a muerte”.

<sup>30</sup> KORTAZAR, J., “Lauaxeta”, Ediciones Alderdi Argitaldaria, 16. or.: “Recorrió toda la Vizcaya rural y su objetivo era claro: buscaba la afiliación de los baserritarras. El argumento era también simple: ya que siempre buscaban lo práctico, la afiliación les reportaría beneficios”.

<sup>31</sup> Azpimarratzekoak Bilboko Euskaldunan, 1933ko urtarrilaren 12an eta Gernikan, 1935eko azaroaren 25ean egindakoak. Biotan Jose Antonio Agirrek hartu zuen parte.

<sup>32</sup> LAUAXETA, “Azalpenak”, “¡Geldi or!”, *Euzkadi*, 1931.10.07/5. Ikus PENADES, J. o. c., 127-135. or.

<sup>33</sup> *Euzkadi* egunkarian, Lauaxetak “Ikasle Ingoskija” antolatua zuen, Eusko Ikasle Batzaren esku geratu zena. Geroago, “Olerki Ingoskiya” ere sortu zuen, euskarazko olerkiak argitaratzeko.

<sup>34</sup> LAUAXETA, “Uarra”, *Euzkadi*, 14.06.32.

<sup>35</sup> LAUAXETA, “Contra los ramplones”, *Jagi-Jagi* 61(1934)3.

<sup>36</sup> PENADES, J., o. c., 137. or.

<sup>37</sup> PENADES, J., o. c., 142. or.

<sup>38</sup> LAUAXETA, “La juventud responsable”. Gernikako mitina 35/11.25, *Euzkadi*, 35.11.26.

<sup>39</sup> KORTAZAR, J., “Sarrera” in *Lauaxeta. Olerkiak*, o. c., 15. or.: “Lizardi eta Lauaxeta uste dugun baino hurbilago aurkitzen dira bere planteamentu poetikoetan... Lauaxetaren ametsak eta formak lotuago daude Europako poesiaren amets eta -batez ere- formarekin, Euskal Erriko formarekin baino. Lauaxetak europarrez amesten du. Eta Europako literaturaren espresabidea erabiltzen”.

<sup>40</sup> “Entzun: ega lureko / seasketara, / ta aur zoragarrienak,  
/ ene maiteok, bertan / aukera”.

<sup>41</sup> “Zerua azpitik orren ederra / Dalarik, amatxo maite, / Ai  
nere poza, zeru-gainkia / Ikustera aal-baningoke!”.

<sup>42</sup> GARTZIA TRUJILLO, S., “Jose Maria Agirre ‘Lizardi’,  
Gizakien alde, mundura bidalitako kristau laikoa”, Sirimiri de  
Pastoral, n. 42, Desclée de Brouwer, Bilbo, 2008.

<sup>43</sup> LAUAXETA, *Bide Barriak*, “Gurutze-aldera”, 10-11.

or.: “Ezin Neugana eldu al-zara / samin arteko zidor aldetik? /  
Arantza erreik mintzen bazabez / ¡¡zatatotz maitasun-bidetik!!”.

<sup>44</sup> LIZARDI, J.; “Rumbos nuevos”, *Euzkadi* 31.12.30/1.

<sup>45</sup> Mat 27, 54. ARTECHE, J., “Un vasco en la posguerra”,  
La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1977, 23-4. or.

<sup>46</sup> LAUAXETA: “Erijotzaren arerijo andijena itxaropena  
dugu”, ikus PENADES, J. o. c., 273. or.

<sup>47</sup> LAUAXETA.



